




Koadrilategi

Sant
Sadurniko
abesbatzaren
bisita
Zegaman

Unanuetarrak
70 urte
goierritarrak
goxatzen

Brigada
Criminal
musika
taldearen
lan berria



+60

-%35

Zaindu zaitezen zaintzen zaitugu



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



FREELANDER BERRIA

NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA

- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak



Gipuzkoarako kontzesionario bakarra
Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
Telefonoa: 943 33 10 06

Goierriako zerbitzua: ANZIZAR

Beasain-Zumarraga errep. • Telefonoa: 943 88 17 00



Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aitziber Murua, Inaki Ugalde, Aimar Maiz, Ion Muñoa, Maite Lasa, Goierriko Agenda 21 eta Landarlan.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.100 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Sugan taldea Euskal Herriko kantu txapelketako finalean

Ataunen lortu zuten txartela beasaindarrek

Joan zen maiatzaren 22an Ataunen jokatu zen Gipuzkoako kantu txapelketan, Beasaingo Sugan taldeak, Euskal Herriko txapelketa jokatzeko txartela lortu zuen. Bikoteen arloan lehiatu zen Sugan eta irabazle izan zen, Maitane Aiertza eta Aiora Urdangarinen aurretik. Azken hau, ataundarra. Sailkapen orokorrean, bigarrenak izan ziren beasaindarrek, Zarauzko Ioritz Azpitarteren atzetik. Ibarrako Elena Orkoien izan zen hirugarrena eta hiruak izango dira Euskal Herriko txapelketan. Gipuzkoa ordezkatzeko dutenak, ekainaren 19an, Donostiako Kursaallean.

Maria Amolategi, Eli Bujanda, Victor Sanchez eta Garazi Zabaletak osatzen dute Sugan taldea eta gustura azaldu dira lortutako emaitzarekin. Beste sari bat irabazteko zorian ere izan ziren beasaindarrek. Kantu berrien atalean, Pasaiako

UZB taldekoekin berdinduta, bigarren saria eskuratu baitzuten. 'Maiatzean' eta 'Zarena zarelako' abestiak kantatu zituzten beasaindarrek.

Gainerakoak ere ondo

Abalortz Olano zaldibiarra, Garazi Aierbe ataundarra eta Jon Barreros lazkaotarrak ere parte hartu zuten Gipuzkoako kantu txapelketan, bakarlariren atalean. Abalortz Olano 3. izan zen, Garazi Aierbe 4. eta Jon Barreros 7. Sailkapen orokorrean ere aurrean izan ziren goierritarrak: Olano 5., Aierbe 6. eta Barreros 11. Azken honek, ahotsean arazoak izan zituen.

Ataundik adierazi digutenez, giro polita eta goxoan jokatu zen kantu txapelketa. 200 lagunetik gora bildu ziren Herri Antzokian.

Goierritarra Goierrikan kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:

urtean 12 euro

Ipar Euskal Herria eta Europa:

urtean 24 euro

Europaz kanpo:

urtean 36 euro



"Hauteskunde iruzurra" salatzeko protestak egin dituzte Herri Plataformek

Maiatzaren 25ean urtebete bete zen udal eta foru hauteskundeak egin zirela. Aub eta 200 herri plataforma baino eghiago erakunde horietan ordezkariarik gabe gelditu zirela salatzeko, protesta ezberdinak egin ziren Goierriko Herri Plataformek deituta. Auzitegi Gorenak baliogabetutako herri platarfomek mozioak aurkeztu zituzten udaletan. Argazkian, Ordiziako bilkura ikus daiteke.



HZri babesa

Goierriko hainbat eragile eta herritarrek, prentsaurreko baten bidez, Herritarren Zerrendarekiko beraien atxekimendua azaldu dute eta ekainaren 13an HZren aldeko bozka eskatu dute.

Besteak beste, Mikel Mendizabal eta Iñaki Murua bertsolariak, Jorge Garmendia LABeko ordezkaria, Aitor Calvillo AEKko irakaslea, Lierni Iztueta EHEko kidea eta Imanol Otegi abokatua izan dira atxekimendua azaldu dutenak.

Sugandila Taldeak Animaliekin egiten den Biolentzia Publikoaren Aurkako plataforma sortu nahi du Goierriin

Sugandila, Animalien Eskubideen Aldeko Taldea, duela urtebete sortu zen, animalien harremanen inguruan gizartea sentsibilizatu eta kontzientziatzeko. Animaliekin egiten den Biolentzia Publikoaren aurkako herri plataforma sortu nahi du orain Sugandilak, "Goierriko herrietako festetan animaliekin egiten diren biolentzia publikoa oinarri duten ikuskizunei aurre egiteko". Udaletxeetan presio bideak jarri nahi dituzte martxan ikuskizun mota horiek kentzeko. Adibide bezala, Ordiziako Santa Ana jaietan izaten den zezenkataren aurkako neurriak hartu nahi dituzte.

Goierriko kultur elkarte, giza talde eta enpresekin osatu nahi da plataforma.

Sugandila taldearekin harremanetan jarri nahi duenak hiru bide ditu: e-sugandila@terra.es posta elektronikoa; 687319593 telefono zenbakia; eta Ordiziako 12 posta-kutxa.

EHNA tramitatzeko aukera Ordizian

Ekainaren 19an, goizeko 10etatik ordu bietara, EHNA tramitatuko da Ordiziako Jakes Etxean. Bide batez Europako hauteskundeetan bozkatzeko, EHNA erabiltzeko deia luzatu dute Bai Euskal Herriari-koek.

Maiatzaren 27an Goierrira etorri zen

Ana Agirre sailburua Goierriko turismo proiektuen lekuko

Ana Agirre, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua gustura etorri zen Goierrira, turismo arloan egiten dena gertutik ezagutzeko. Bilbon jaioa izanagatik, Ataunen hazia dela, eta ataundar eta goierritarra zehaztu zuen Ana Agirrek.

Turismoaren arloan Goierriko hainbat herritan egiten ari diren egitasmoak bisitatu zituen Ana Agirrek, Koro Garmendia, Mercedes Rodriguez eta Iñaki Gorostidi Turismo saileko arduradunekin batera. Ataunen Larruntza errota, Beasainen Igartzako multzo historiko-arkitektonikoa, Segurako Ardixarra etxea eta Ertaroko Interpretazio Zentroa eta Ordiziako Domingo Unanue Etxea bisitatu zituen. Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzaz burutzen ari diren lanok begi onez ikusi zituen Agirrek. Behin eta berriz azpimarratu zuen, turismoari begira egiten ari diren proiektuak, *"neurri-neurriko proiektuak direla, proiektu errealistak"*. Ana Agirre sailburuak zoriondu egin zituen Goiturrekoak turismoan egiten ari diren laangatik.



Ana Agirre sailburua Goierriko hainbat alkate eta zinegotziekin egindako bileraren ondoren ateratako argazkia. Goiturreko ordezkaria ere bertan izan zen. Liernin ateratako argazkia da.

Artzaitour ekimenari esker artzainek baserriko ateak irekiko dizkie herritarrei *Idiazabal Gazta nola egiten den ikusteko aukera izango da*

Artzain Gaztak ekimen berria jarri du martxan: Artzaitour. Gaztaren ibilbide hau, euskal gazta ezagutzeko ibilbidea izango da. Bide batez, turismoa erakarri nahi dute. Herritarrei Idiazabal Gazta gerturatu nahi zaie, *"egiazta dezaten Idiazabal Jatorri-Izendapeneko gaztarik onenak egiteko erabiltzen duten kalitatea"*. Horrekin batera, bisitariak Euskal Herriko gastronomia osatzen duten baserriko beste produktu batzuk ere aurkitu ahal izango ditu. Artzaintourrek ere badu beste helburu bat: euskal baserria bertatik bertara eta zuzenean ezagutzea, artzainen bizimodua, mila urte baino gehiagoko usadioak eta aurrerapen handienak elkarrekin uztarturik.

Gipuzkoako 16 baserrik osatzen dute Artzaitour. Goierriin Artzaitour ekimenaren barruan dauden artzainak ondokoak dira: Olaberriko Aizpea eta Abaroa, Idiazabalgo Ondramuinoeta Gabiriko Baztarrika baserria. Baserriok Artzaitour egitasmoaren barruan daudela ziurtatzen duten identifikazio plaka izango dute baserrietako sarreran. Artzainek salmentak igotzea espero dute ekimen honekin.



Artzai Gaztaren ekimen berri hau, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Turismo Sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz sortu da.

Goierri-Urretxu txapelkun Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari txapelketan

Maiatzaren 28an jokatu zen Zarautzen Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa eta bertan txikien mailan Goierri eta Urretxuko taldea izan zen nagusi. Goierriko Bertso Eskolatik Ainhoa Mujika beasaindarra eta Joseba Agirrezabala idiazabaldarra aritu ziren Amaia Iturrioz eta Manex Mantxola Urretxuko Bertso Eskola-koekin batera. 13 eta 11 urte egiteko dituzte oraindik hurrenez hurren Ainhoa eta Josebak eta beraz, Goierriko Bertso Eskolan etorkizunik badela argi utzi zuten bi ordezkariok.

Bestalde, 18 urte bitartekoen mailan Aitzol Munduate aritu zen eta saio polita egin bazuen ere ez zen lehen bi postuetan sartu.

Takolo pailazoaren agurra

Urri-azaro aldera, Takolo pailazoak, Zaldibian bizi den, Agustin Mujikak, agur esango die eskenatokiei. Hori bai, bisitak egitera itzuliko dela ziurtatu du. Hurrengo aleetan izango dugu Takolo eta Agustin gertutagotik ezagutzeko aukera.

Dena den, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoez beste berri bat ere eman dute: 'Poxpolin Marisorgin' ikuskizunaren grabazioa egingo dute dagoeneko. Zaldibiako haurrak dira bertako protagonistak.



Oianguren Institutuko idazle gazteak

4 sari eskuratu dituzte

Maite Huerta, Amaia Martinez, Joana Azketa eta Garazi Azurmendi, Ordiziako Oianguren Institutuko ikasleak, sariak izan dira Galtzagorri Elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin bigarren urtez antolatutako literatur lehiaketan. A mailan, 1. zikloko ikasleen atalean, Maite Huertak 2. saria eskuratu du eta Amaia Martinezek 3.a; B mailan, 2. ziklokoenean, Joana Azketak lehenengo saria jaso du eta Garazi Azurmendik hirugarrena. Sari banaketa, ekainaren 3an egin zen, Donostiako, Diputazioan.

Epaimahai berezia

Teknologia berriei leku egiten die literatur lehiaketa honek. Epaimahaiak jasotako lan guztien artean 10 hautatzen ditu eta www.galtzagorri.org web gunean jartzen ditu. Web orrian sartzen diren irakurleek botoa emanaz aukeratu dituzte sail eta maila bakoitzak hiru lan irabazleak. Idazlanak lehen aipatutako web orrian daude irakurgai.

Sustraiez Blai sariak

Maiatzaren 28an Sustraiez Blai zozketaren sari banaketa burutu zuen, Beasaingo jaietan ipinita zuten txosnan. Ezkerretik hasita Josetxo Sastre, Eli Aranburu beasaindarrari bere Saria ematen (Pagorriaga nekazal-turismoan zortzi lagunentzako asteburua. Zenbaki saritua: 9026). Eskuinean Danel Etxeberria, Lourdes Aranburu, itsasondorriari berari dagokion saria ematen (Beasaingo Elkartasun dendan 300 eurotako erosketa. Zenbaki saritua: 2905).



Energia berriztagarriak

Guk uste baina energia garbi gehiago ditugu gure inguruan baina ez ditugu ondo erabiltzen. Eguzkia, haizea, itsasoko olatuen mugimendua eta mareak, erreketako uraren desnibela aprobetxatu energia sortzeko eta bizidunek pilatzen duten energia erabili, honi biomasa deitzen zaio.

Espainia da kutsatzaile gehien aireratzen duen nazioa. Espainiak Kyotoko protokoloa sinatu bazuen ere airera isurtzen duen CO₂ a %15 igo behar baldin bazen 1990 eta 2010 artean ia 2002an 38% igo zen. Gobernuak dioenez hau guztia biztanleriak eman duen hazkuntzaren ondorioz izan da baina WORLD WATCH-ek dioenez Espainian airera botatzen diren kutsatzaileak Txina bezalako nazio baten baino 7 aldiz gehiago da. Baina kontuan hartu behar da nazio bakoitzak hartu behar dituela arazo honi aurre egiteko deizisio politiko eta ekonomikoak. Arazo hau konpontzeko erarik onena airera isurtzen den CO₂ jeistea da eta energia berriztagarriak erabiltzea.

Energia berriztagarriak ez dira inoiz bukatzen. Erabil ditzakegu lasai asko eta gainera gure bizitzan ez dute inolako kalterik egiten.

Egun energia eolikoa izango da gehien erabiltzen den energia berriztagarria. 2002 urtean 61.500 aerogeneradore baino gehiago zeuden martxan munduan 40 nazioetan. Kasu honetan Espainiak 2001-2002 artean %44 igo zuen aerogeneradore kantitatea. Aipatu Alemania dela Espainiaren aurretik aerogeneradore bidez sortzen den energia hau erabiltzen. Galizia, Nafarroa eta Kastila Mantxan dira parke eoliko gehien. Baina guk gertuen dugun parke eolikoa Elgea eta Urkillagako mendize-

rran daudenak dira. Hauek sortzen duten inpaktu bisuala ere oso handia da. Gainera talde ekologikoek diotenez hegaztien bizi kalitatea eta iraunkortasuna kolokan jartzen dute aerogeneradore hauek. Espainiako parke eolikoetan 20 hegazti hiltzen dira aerogeneradore bakoitzeko urtero zifra hau bidertuko bagenu dauden aerogeneradore bakoitzeko zifrak oso handiak dira.

Eguzki plaken gorakada ere nabarmena da. Hauen erabilera petroleoaren krisiaren ondoren hasi zen handitzen. 2002an panel hauek sortzen zuten energia 550 Mwp igo zen 2000koa baino bi aldiz handiagoa. Kasu honetan ere Alemania da kantitate handien duen nazioa 300 Mwp, baina Espainian kondizio hobeak eta eguzki gehiago edukita 20,5 MWp sortzen dugu. Eguzki ordu gehiago dugu 3.600 hain zuzen ere eta paisaia ere ezin hobea da.

Biomasa berriz oraindik nahiko behean dago. Nafarroan badago lastoa errez ura berotu eta elektrizitatea sortzen dutenak baina energia sortzeko era honek instalazio handiak behar ditu eta almagazten handiak. Kasu honetan produktua erretzen dute eta honek ur lurrindua sortzen du presio handian eta honek elektrizitatea sortzen du turbina batzuen bidez. Egun nekazaritzan sortzen diren hondakinak erabiltzen dira eta basoan lortutako egur zatiak, baina landare energetikoak erabiltzea izango litzateke hoberena kasu honetan. Nafarroan egin dira zenbait esperimentu landare energetiko ezberdinak erabiliz ia zeinek duen biomasa gehien eta zeinek sortuko lukeen energia gehien. Erabili diren landareak kanamoa, girasola eta sorgoa izan dira. Sorgoa izango litzateke landare hoberena. Gainera gure lurraldean ondo moldatzen da eta ura jarritz gero 4 bat metro neurtuko litzuke.

Kyotoko protokoloa betetzeko era bakar bat dago atmosferara isurtzen diren kutsatzaile horiek jeistea eta energia berriztagarriak gure gizartean sartzea horrela ingurumena zaindu eta egun dauden arazoak jaisten joango ginateke.

Amaia Gorospe Bidaola

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

JAKIN BEHARREKOA

✓ **Azken urteetan haize errota kopurua asko igo da Euskal Herrian** baita estatu mailan ere. Gertuena Elgeako mendizerran daudenak dira baina El Perdonen ere badira eta beste zenbait lekutan ere. Baina orain itsasoan jarri behar dituzte haize errota. Gainera EHNEk, Nafarroako energia berriztagarriaz arduratzen den enpresak Irlandako Airtricity enpresarekin konbenio bat sinatu du itsas haize errota jartzeko Irlandako kostaldean.

Horrelako haize errota Dinamarka, Bretaña Handia, Alemania, Suezia eta Holandan ia badaude. Espainiako estatuan oraindik ez dira aurkitzen baina Galizia, Katalunia eta Andaluzian jarri nahi dituzte.

✓ 2002ko azaroaren 19ko hondamendiaren ondoren, **Prestige ontziaren ondoraketa**, egun hasiko dira fuel-olioa ateratzen bere barnetik. Repsol-Ypf enpresak aterako du barnetik fuel-olioa. Iaz egin zituen probak eta arrakastatsuak izan ziren. Udaberriari zain egon dira itsasoaren egoera egonkortu arte.

✓ **Hegazti gutxiago nekazaritza intentsiboaren erruz:** Europako hegazti espezie arruntenak heren bat murriztu dira nekazaritza modernoaren eraginez, ornitologoek ustez. Gainbeherarik bortitzena oso nekazaritza intentsiboa daukaten lurraldeetan gertatu da, Europako ipar-mendebaldean, alegia.

"Energia berriztagarriak ez dira inoiz bukatzen"

Apartheid politikoa, urtebete beranduago

Ehundaka herri kandidatura legez kanpo utzi ondoren, milaka Euskal Herritarren ahotsa isildu nahi izan zen duela urtebete, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa Garaian egin ziren Udal Hauteskundeetan. Ordutik gaur egunera bitarteko gertaeren kokapena egin eta egoera honen aurrean erabaki politiko bat hartzeko helburuarekin, honako lau puntuko mozio hau aurkeztu da udaletan, Osoko Udal Batzarrean eztabaidatua izan dadin.

1.- Udal honek, tristuraz gogoratu eta ozenki salatzen du, duela urtebete Madril-ek gure herriaren eta herritarren eskubide politikoak urratzeko egindako saiakera. Zorritzarrez, ez lehena eta azkenekoa ere ez dena.

2.- Udal honek, herritar oro eskubide zibil eta politiko guztien subjektu dela aldarrikatzen du. Era berean, Euskal Herritar orori da-

gokigu gure herriaren etorkizuna erabakitzea, eta hori lortzeko eta benetako demokrazia lortzeko alderdi politiko, sindikatu, gizarte eragile eta instituzio guztiei elkarriketa eta konponketarako konpromisoa eskatzen die. Udal honek, herritarren hitzaren eta borondatearen gainetik dagoen inongo legalitate-rik ez du onartzen.

3.- Udal honek, Aleria Zutabea herri plataforma, beste edozein alderdi politiko bezala, eragile eta mintz-akide politiko gisa onartzen du, eta iazko maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan plataforma honek izan zituen emaitzak errespetatu eta onartzeko konpromezua hartzen du. Hori horrela izan dadin, udal honek 5/1985 LOREG-aren 182. Artikuluan jasotzen den formula aplikatu-ko du, herritarrek aukera- turiko zinegotziek eskubi- de osoz kargua bereganatu dezaten.

4.- Plataforma honen eskubi- de gabetzaren baitan sortu den egoeraren aurrean pro- testa egiteko datorren maiatzaren 25 ean egingo diren mobilizazioetan par- te hartzeko deia luzatu nahi die udal honek herri- tarrei.

Lazkaoko udaletxean maiatzaren 26an egin zen ple- noan gertatutakoa argitaratu nahi genuke. 2003ko udal hauteskundeetan Espainiako legalitateak onartu ez zuen Aleria Zutabeak jaso zuen babesa kontutan hartuta (3 zi- negotzi dagozkio) ordezkari hauek beren karguak bete ga- be jarraitzen dute. Plenoetan beren eserlekuak ez dagoz- kien beste batzuk betetzen di- tutze. Aleria-ko 3 zinegotziek jendartearen esertzea beste au- kerarik ez dute eta hori gutxi balitz, lehengo asteko pleno- an hitza ere ukatu zitzairen bertaratutako herritarrei eta goian aipatzen diren puntue- tako bat bera ere etzen onartu. Gogor salatu nahi dugu joka- bide hau, Lazkaoko kasuan

PPko eta PSOEko zinego- tziez gain PNV-EA koek de- bekatzen baitigute hitza. Ger- takari hauen inguruan duten arduraz jakitun jokabide ho- riek herri mailako giro liskar- tsura garamatzatela uste dugu eta hitza ere debekatuz ez gaituztela kokilduko garbi utzi nahi dugu, denborak he- rri honen historian bakoitza bere lekuan jarriko baitu eta zuek Felix Urkola (alkatea), Inazio Estensoro, Kepa Goe- naga, Xanet Barreras, Inazio Barandiaran, Arantxa Zume- laga, Gorka Lamy, Amagoia Naldaiz, Jabier Arrasate eta Igor Sarriegi (zinegotziak) Lazkaotarren eskubide urra- ketan eta hitzaren ukazioan egiten duzuen lan ederragatik zoriontzea besterik ez zaigu gelditu.

*Angel Eztala, Patxi Senar eta
Patxi Madariaga (Lazkaoko Ezker
Abertzalearen izenean)*

Goimusic zozketako emaitzak

CD sorta eta kamixeta:

Valentin Mugarza

Kamixetak:

Etorne Aranburu

Iñaki Mozo

Itziar Olano

Iker Imaz

Saria jasotzeko deitu GOIERRITARRA (943 88 96 12) edo pasa bertatik (Santa Maria kalea, 4 - Ordizia).



1. Baliabideen erabilera egokia

Iraunkortasunaren

12 irizpideak:

1. Baliabideen erabilera egokia egitea.
2. Inguruneak berritze-ko duen berezko ahalmena ez gainditzea.
3. Bioniztasuna baloratu eta babestea.
4. Lurzoruaren erabilera iraunkorra izatea.
5. Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea.
7. Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea.
8. Oinarrizko zerbitzuak eskura izatea.
9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkuntza.
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea.
11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea.
12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoaren aurrean.

Gizakion premiak asetzeko ingurumetik etengabe hartzen ditugun aire, ur, lur, elikagai, energia eta abarrei deitzen zaie baliabide edo errekurso natural. Hauetako batzuk berriztagarri badira ere (eguzki energia, energia eolikoa, zura,...) baliabide gehienak berriztaezinak dira eta beraz agortzen doaz. Baliabideak bizitzarako ezinbestekoak ditugunez zaindu beharreko ondare ditugu.

Etxean eta lanean baliabide naturalak egunerokoan erabiltzen ditugunez (ura,

energia,...). hauen zentzuzko erabilera lortu beharra daukagu. Baliabideak mugatuak direlako batetik eta hauek gureganatzeko jarduerak (zentral hidrologiko, nuklearrak, urtegiak, ...) ingurumenean eragina dutelako bestetik.

Honela, etxean zein lanean baliabide hauen kontsumoa eta erabilera kontrolatu eta zentzuzkoa bultzatzeko zenbait eredu jarraitu genitzake, bizi kalitate bera mantenduz.

Gutxi egitekotan hobe ezer ez egitea: ez dago hori pentsatzea baino hutsegite handiagorik

Edmund Burke



Bal al dakizu?

- ➔ Etxe barruko tenperatura egokia 20-22°C-koa da, hortik gora behar baino energia eta diru gehiago gastatuko duzu, graduko %5-8ko gehiago. **Berogailua zentzuz erabili!**
- ➔ **Fluoreszenteak** ohiko bonbilak baino 6 aldiz garestiago badira ere **%80 bitarteko energia aurrezpena** suposa dezakete. Hori bai! ez da komeni sarritan piztu eta itzali behar diren tokietan jartzea, hauen kontsumoa ordu erdira baita errentagarria.
- ➔ Behar ez direnean **itzali argiak eta aparatuak** (fluoreszenteak ordu erdi baino lehenago ez!)
- ➔ Dutxan hobe da **termostatoa** gradu batzuetan jeistea ur beroa eta hotza nahastea baino.

- ➔ **Garbigailuak** kontsumitzen duen energiari gehiena (**%80**) ura **berotzeko da** eta hori ez da beharrezkoa izaten.
- ➔ Dutxan bainuan baino **100 litro** gutxiago gastatuko duzu.
- ➔ Komuneko **zisternak** husturiko ur kantitatea 2 litrotan murrizteko nahikoa da urez beteriko **2 botila** bertan sartzea.
- ➔ **Hortzak garbitzean** ala bizarra moztean iturria itxita izatean **5 litro ur** aurreztu ditzakegu.
- ➔ **Berrerabili daitezkeen produktuak** aukeratzea hobe, erabili eta botatzeko aurrean.
- ➔ **Berziklatutako produktuak** erabiliz energia aurreztu daiteke (paper, beira, plastiko...).

Duela 15 urte egin zen bezala

Sant Sadurniko abesbatza Zegaman izango da Orkatz abesbatzak gonbidaturik

Ekainaren 4tik 6ra, Bartzelonako Sant Sadurni D'Anoia herriko abesbatza Zegaman izango da, bertako Orkatz abesbatzak gonbidaturik. Era honetan, duela 15 urte sortutako harremana indartu nahi dute zegamarrek. Urrian, Kataluniara joango dira Orkatzekoak.

Duela 15 urte sortu zen Sant Sadurni D'Anoia abesbatzaren eta Zegamako Orkatz abesbatzaren arteko harremana. Estua gainera harremana. Urte tarte honetan, gutxi edo gehiago, harremanetan jarraitu izan baitute kataluniarrek eta zegamarrek.. 15. urteurrena gogoratzeko, hasierara itzuli nahi izan dute zegamarrek, berriz ere elkartrukea eginez. Hau da, asteburuan Zegamara etorriko dira kataluniarrek eta urrian Kataluniara joango dira zegamarrek.

Bergarako Aritzeta abesbatzari esker sortu zen harremana 1989an. Bergaran topaketa bat egiteko asmoa zeukaten eta Bartzelonako abesbatzei gonbidapena luzatu zioten. Bi etorri ziren, tartean Sant Sadurnikoak. Orkatzeko-



Gaur eguneko Orkatz abesbatza.

oi Sant Sadurnikoak etxeetan hartzeko aukera eman zioten. Dena den, beraiek hona etorri aurretik, Zegamatik Kataluniara joan ziren, 1989ko martxoan. 1992an bigarren elkartrukea egin zuten. Beste

behin, Santo Domingo de Silosen ere bildu ziren kataluniarren ekimenez, bertako monasterioan kontzertua eskaini eta bide batez harremana mantentzeko.

Asteburu bete-betea

Gaur, ostirala, ekainak 4, gaueko 10ak aldean, iritsiko da lehenengo autobusa Sant Sadurnititik. Bigarrena, larunbatean, eguerdiko 2ak aldean. Larunbatean eta igandean izango den egitaraua aurreratu digu Aitor Galdosek.

Larunbatean, goizean, Goiturren laguntzaz, Goierri erakutsiko zaie. 14:00etan beste autobusa iritsiko denez, harrera ofiziala izango da udaletxean. Ikurrina eta senyera, Kataluniako bandera, jasoko dira, Xabier Azurmendi herriko dantzariaren eta Orkatz Txiki abesbatzaren jardunekin batera. Bazkaria harrera etxe bakoitzean egingo da. Iluntzeko 8etan, San Martin parrokiaren kontzertua izango da. Ondoren, Olatza sagardotegian afaria egingo da.

Igandean, Zegama ezagutuko dute, Linue Zegamako enskutik. Eguerdi aldera, poteo herrikoia egin, garaiz bazkaldu eta berriz itzuliko dira Sant Sadurni aldera.

Helburuak

Aurtengo elkartruke honen helburuak hiru dira Aitor Galdos, Orkatz elkarteko ki-deak adierazi digunez.

Batetik, 15 urteko harreman hari berriz heltzea eta harremana berotzea. "Gaur egun Orkatz osatzen dugunontzat ere oso ondo etorriko da, beti mito bat bezala eduki dugulako elkartruke hori eta Sant Sadurnirekin izan den harremana. Gazteok ez dugu harreman hori ezagutu".

Bigarrenik, Orkatz abesbatzan noizbait abestu izan duenari berriz ere atea irekitzea eta abesbatzan kantatzeko zein sentipen eman dituen gogoraraztea. "Erantzuna positiboa izan da bai kantari ohien aldetik eta bai kataluniarrek etxean hartzeko zegamarrek emandako laguntzaren aldetik. Ez garela gaur egun osatzen dugu 30 kide bakarrik, historian zehar osatu izan dugun 200 lagun baizik. Balio izan digu, Orkatz abesbatza familia bat dela berresteko", gaineratu du Orkatzekoak.

Eta hirugarrenik, bi herrien arteko harremana sendotzea. Arlo honetan, Zegamako Udalak gonbidapena luzatu dio Sant Sadurniko Udolari. Alkatea eta beste 4



GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE

- * Depresioak
- * Harremanetarako arazoak
- * Beldurrak
- * Antsiak
- * Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN


Pedro Jose Landa Gutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687



ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

 **txekin**

Domingo Unanue plaza, 2 behe ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

zinegotzi etortzekoak dira. "Hartueman musikal baten ondorioa bada ere, Zegamari ondo datorkio bi herrien arteko harreman hori sendotzea. Beraiei itxura denez ere bai", dio Galdosek. "Abesbatzen arteko harremana mantendu da eta baita bi udalen artekoa ere. Herriko plazan jartzeko gabon pinua bidali izan zaie hainbat urtetan. Zenbait kasutan hoztuta ere egon daiteke, eta harreman hori berotzeko momentu ona izan daiteke", adierazi digu Galdosek.

Zegaman eta zegamarren artean oroimen ona dago lehenengo elkartruke hartaz. Zenbait kasutan harremanari eutsi egin zaio 15 urteotan. Udaro Zegamara etortzen diren hiruzpalau familia badaude. Gabonetan Sant Sadurniko kaba etxe askotan izaten da Zegaman.

Urriari Kataluniara

Urriko bigarren asteburuan, 8tik 10era, joango dira zegamarrak Kataluniara. Kabaren astea ospatzen dute eta bertan, larunbatean, tartetxo bat izango du Orkatz abesbatzak. "Asmoa Zegamatik ahalik eta



Duela hamabost urteko Orkatz abesbatza.

jende gehien joatea da. Handik 100 lagun datoz eta gu ere beste hainbeste joatea nahiko genuke. Hura ere festa handi bat bihurtu nahi genuke".

Kabagatik ezaguna

Bartzelonako Alt Penedes eskualdean dago Sant Sadurni D'Anoia. Kabagatik da ezaguna eskualdea eta Sant Sadurni. 10.000 biztanle inguruko herria da.

Orkatz abesbatza osasuntsu

1981. urtean sortu zen Orkatz abesbatza Zegaman. 30-35 abeslarik osatzen dute Orkatz abesbatza. Astero bitan entsaiatzen dute. Haurren abesbatza ere badago: Orkatz Txiki. 42-43 haurrek osatzen dute. Abesbatzak krisian daudela esan ohi da sarritan baina Zegaman ez dago horrelakorik. "Beste herrietan nola dabilzan ikusita nik uste salbuespena garela, bai jende kopuru aldetik eta aurrera begira markatuta dauzkagun helburuengatik. Orkatz Txiki 42-43 haurrek osatzen dute eta hori da gure harrobia. Talde handia gara. Elkarrekin bizirik dago, gaur egungo 70 lagunak baino askoz ere gehiago gara", azaldu du Aitor Galdosek. Osasuntsu egotearen sekretua zein den galdetu diogu zegamarrari: "Batetik, Orkatz Txiki abesbatza harrobi bezala izateak nik uste asko lagundu duela osasuntsu egoteko. Bestetik, abeskide ohiek ere mantendu egiten dutela Orkatzekiko harremana edo lotura".

1989. urtea, Sant Sadurnikoekin egindako harremana, urte erabakigarria izan zen Orkatzentzat. "Orduko esperientzia gauza askotarako baliagarria izan zen". Handik aurrera etorri ziren kontzertuak eskainiz egindako bidaiak. Italia, Britainia, Paris, Belgika, Asturias, Suiza, Austria, Alemania, Txekia leudeke bisitatutako herrialdeen artean.

Udaro Zegamara etortzen diren hiruzpalau familia badaude. Gabonetan Sant Sadurniko kaba etxe askotan izaten da Zegaman.

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

AKILES

**Fisioterapia
ZentruA**

Olatz Aranburu Elk.Zk:319
Alaitz Zubizarreta Elk.Zk:342

Fisioterapia eta Osteopatia
Erreabilitazioa
Tratamendu partikularrak eta aseguruak
Etxeetako zerbitzua
Santa Maria, 16 **ORDIZIA**
Tel.: 943 88 19 64

Kuadrillategi: aisian oinarrituta, koadrilan euskararen erabilera bultzatzea helburu duen ekimena

Beasainen 3 urte daramazki proiektuak

Beasaingo Loinazpe, Alkartasuna Lizeoa eta La Salle-San Jose ikastetxeetako hiru koadrila elkartzen dira ostiralero, Beasaingo Ikastolaren lokaletan, arratsaldeko 5,30etatik 7,30etara, aisialdia, euskaraz pasatuz, beraien arteko harreramentarako hizkuntza naturala euskara izan dadin finkatu asmoz.

13 eta 16 urte bitarteko gazteak dira, irailetik ekainera, Kuadrillategin parte hartzen dutenak. Dohainik izaten da. 2003-2004 ikasturte hasieran 25 lagunekin hasi bazuten ere, gaur egun 34 gazte ari dira ostiral arratsaldetan, aisiaren eta euskararen bueltan. La Salle ikastetxeko koadrila, Kuadrillategiren hasiera-hasieratik izan da, nahiz eta adinagatik, aurten azkeneko urtea izango duten. Tania Funes, Eli Gonzalez eta Miriam Campos dira Beasainen ardura daramatenak.

Duela hiru urte hasi zen Kuadrillategi ekimena Bea-



Miriam Campos, Eli Gonzalez eta Tania Funes,
Kuadrillategiko begiraleak.

sainen, bertako Udalaren ekimenez. Lagun taldeko edo koadrilako hizkuntza euskara izan dadin lortu nahi da Kuadrillategirekin. Tania Funesek adierazi digunez, “euskara suspertzeko helburua du Kuadrillategik. Kalean gero eta euskara gutxiago erabiltzen dela eta, Kuadrillategi sortu zen aisiaren bitartez euskara suspertu eta beraien artean euskaraz hitz egiteko ohitura sortzeko”. “Euskara guztiek badakite, erabilera da arazoa. Ohituta daude es-

kolatik kanpo erdaraz egiten”, gaineratu du Eli Gonzalezek.

Lortutako emaitzekin gustura daude beasaindarrak, euskaraz hitz egiteko ohitura hartzeaz gain, euskararen maila bera ere hobetzen dutelako gazteek.

Aisia oinarri

Beasaingo Ikastolaren lokaletan elkartzen dira Kuadrillategikoak, ostiraletan, arratsaldeko 5,30etatik aurrera. Aisialdirako aukera eskaintzen

du Kuadrillategik. Euskarazko aisialdia. Tailerrak, jokoak, irteerak... egiten dituzte. Mozorroak egin zituzten inauterietan... musikarekin ospakizun bereziren bat egingo dute ikasturte amaieran. Lokalean sukaldea ere badutenez, sukaldaritza tailerra egin izan dute. Aurten adibidez Lazkaoko festetara joan ziren koadrilen egunean. Dena den, irteera gutxi egin omen dituzte aurten, eguraldia dela medio.

Begiraleak saiatzen dira neska eta mutilen gustuak eta adin ezberdinetako gazteen gustuak uztartzeko ekintza egokiak antolatzen. Beasaingo Udalak jartzen du ekintza ezberdinak burutzeko behar den dirua: hileko 120 euro; ostiraleko 30 euro.

Kuadrilla + tegi

Kuadrillategi izenak berak dio ondoen zer den Kuadrillategiren filosofia: “kuadrilla gaztelerazko hitza eta -tegi atzizkia euskarazkoa. Euskara eta erdara lotzeko tresna da Kuadrillategi. Egitasmoaren esanahiaren islada da izena bera”, zehaztu digute begiraleek.

Kolegiatu zkia.: 649 RPS 144/02

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN



Kuadrillategi gehiago

Beasainen duela hiru urte jarri zuen martxan Beasaingo Udalak Kuadrillategi. Gazteen arteko harremanetan euskarara finkatzeko helburuarekin sortutako ekimena, Lasarten sortu zen. Lasartetik beste

hainbat herritara zabaldu da: Gipuzkoan Andoain, Urnieta, Deba, Bergara, Aretxabaleta, Astigarraga, eta Nafarroan, Atarrabia, Burlata eta Uharte. Kuadrillategiren topaketa egin zuten maiatzaren 22an eta 23an Hondarribian, elka-

arren arteko harremanak sortu eta sendotzeko. Beasaindarrak, gogoia izan bazuten ere, herriko festak zirela eta herriari gelditu ziren Dena den, elkarren artean eskutitz bidezko harremana badute.

Beasaingo Kuadrillategi-

koek Goierriko herrietako udalak animatu nahi dituzte Kuadrillategin murgiltzeko, "inguruan Kuadrillategi gehiago egonez gero aberatsagoa izango litzateke, ekin-tza ezberdinak egiteko", adierazi digute beasaindarrek.



AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zemb. 599
Urdaneta 52-behea. Ordizia.
Tel.: 943 087 486
635 703 671 / 635 702 570

- Jabekideen komunitatea osatzea
- Komunitateen kontabilitatea
- Akten idazketa
- Aurrekontuen eskaera
- Aholkularitza legala
- 24 orduko asistentzia
- e.a.



MUJKA
LIBURUDENDA
Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



iBAi ONDO
ARozTEGIA
Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritara
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Joxe Mari Unanue, Unanue gozotegiko 3. belaunaldia: "Lehen asteburuetan edo ospakizun handietan bakarrik jaten ziren pastelak"



70 urte Goierritarrak gozatzen

Ordiziako Zabale baserriko Antonio Unanue hasi zen gozogintzan. Argentinara joatekoa zen, han anaiak baitzituen aurretik joanda. Azkenean ez zuen joaterik izan eta Imaz Ariztimuño gozotegian hasi zen langintza ikasten. Felipe Imaz eta Jose Domingo Ariztimuño ziren nagusiak, Kale Nagusian zuten gozotegia, orain Eroski bidaiak dagoen lekuan. Hortik Donostiara joan zen ikasten jarraitzeko. Munduko lehen geratearen ondoren Europako sukaldari, gozogile eta zerbitzari asko etorri zen Donostiara lanera eta gozogintza maila handia zegoen bertan. Donostian 8-10 bat urtetan aritu zen eta Beasaingo Iraola gozotegira etorri zen. Bertako nagusia, Imazenean ikasten batera aritutakoak ziren, istripuz hil zen eta bere ordez lan egin zuen, anaiari erakusten zion bitartean. Hor ezagutu zuen Kristina emazte izango zuena Lazkaoko Iztueta baserrikoa eta elkarrekin Ordizian gozotegia ireki zuten 1934an. Lehen obradore edo lantegia pilotalekuaren ondoan, Filipineta kaleko lehen zenbakian izan zuten eta denda Santa Maria kalean, Martinez jatetxearen ondoan. Bigarren denda, Kale Nagusikoa, duela 40 urte inguru ireki zuten. Orain dela 27 urte obradorea Modelo karrozategia zegoen lekura eraman zuten. Ondoren Joxemiel Barandiaran plazan dagoen denda ireki zuten. Duela 10 urte Beasaingo denda ireki zuten eta orain dela 3 lantegi berria Lukusin plaza azpiko aldean.

Antonio Unanuek 1934an ireki zuenetik 3. belaunaldia da gaur egunekoa. Aitona jubilatuta ondoren ere egunero jaten zen gozotegira, ezindua zegoenean ere autoan eraman eta bertan ordu pare bat egiten zituen. Gaur egun jubilatuta dauden bi semeak Joxe Marik eta Luis Marik ere berdin egiten dute. Azken honen semeak Joxe Mari Unanuek jarraitzen du, langintzari eutsiz.

Asko aldatu al da gozogintza?

Aurrerapen handiak daude, lehen labea egurrarekin berotzen zen eta orain dena elektrikoa eta gasarekin da. Egurrarekin labeko tenperatura egokia mantentzea zailagoa zen eta orain hori dena automatizatuta dago. Makinak ez dira hartaraino aldatu labeetan eta hozkailuetan izan dira aurrerakuntza handienak. Adibidez, garai bateko hozkailua, izotz barra bat zuen armairua izaten zen.

Jendearen jateko ohiturak ere asko aldatu dira. Lehengo gozoak pisuagoak ziren, gu-

rin gehiago, mazapan gehiago... Orain esnegaina, fruta eta gai arinagoak erabiltzen dira. Azkenaldian pastel txikiak ere modan jarri dira. Pixkanaka gertatu dira aldaketa hauek denak.

Lehen kafea xigortzen genuen. Gozogintzarako ezta erabiltzen zenez, eztaiz gain argizaria ere lantzen zen gozotegietan. Gozokiak ere egiten ziren.

Labeen aldaketa nabarituko zen lan egiteko moduan, baina pastel eta tartetan nabaritu al da?

Lan egiteko garaian askoz ere erosoagoa da, baina zaporea berdin mantendu da. Lehen labeak adreilua zuen inguruan eta adreilu hori suak berotzen zuen. Orain berriz, erresistentzia elektrikoek berotzen dute adreilu hori.

Kontsumitzaileen ohiturak ere asko aldatuko ziren.

Lehen asteburuetan edo ospakizun handietan bakarrik jaten ziren pastelak. Gaur egun, berriz, gutxi edo gehiago egunero jaten dira pastelak, tartak edo opilak.

Beste hainbat ohitura bitxi ere aldatu dira. Adibidez, emakumezkoek haurra izaten zutenean, oparitarako, papezko bizkotxoak, kafea eta ardo goxo botila eramaten zi-



izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049 - 943 187 045

Ondramuño baserria IDIAZABAL



Biok ZERBITZUAK, S/L

Enpresetako aholkularitza orokorra

☎ 943 88 44 00 Goierri, 12 ORDIZIA www.biokzerbitzuak.com

Errenta aitorpenak egiten ditugu

Astelehenetik ostiralera
8:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00



Ordiziako Kale Nagusiko denda ireki zuten eguneko argazkian Unanue gozotegiko ekipo osoa ageri da. "Bertan daude Antonio eta Kristina bidea hasi zutenak. Aitona obradorean eta amona, oraindik bizi dena, dendan aritzen ziren. Ondoren gure gurasoek eta osaba-izebak ere berdin egin zuten", dio Joxe Marik.

ren. Edo haurra bataiatzen zenean bikarioari tarta bat eramaten zitzaion. Horiek denak galdu ziren.

Opilak geroz eta indar handiago ari dira hartzen gozogintzan.

Bai asko kontsumitzen da. Geroz eta gehiago kanpotik eginda datozenak ari dira sartzen, baina, guk geuk egiten ditugu.

Zein da arrakastarik handiena duen pastela?

Merlitoi bereziak egiten ditugu. Askok euskal pastelarekin nahasten dute, baina, ezberdina da. Euskal pastela pisuagoa da eta merlitoia arinagoa. Gure aitarengandik datorren errezeta da. Gainerakotan, dozena erdi bat pastel mota daude gehien saltzen direnak. Erostera datorrenak badaki zer nahi duen.

Eta, hasiera haietan zer saltzen zen gehien?

Orduan frutaz egindako pastelak eta ez ziren egiten, kiwizkoak, marrubizkoak... Adibidez, orduan marrubia bertakoa eta garaikoa bakarrik zen eta orain ia urte guztian egoten da. Baina, bon-

bak, milojak, sagar pastela eta horrelakoak orduan egiten ziren eta gaur egun ere berdin egiten dira.

Kremazko pastelak saltzen omen dira gehien, krema egiteko sekreturen bat izango duzue.

Bai, horrek ere badu berea, oso goxoa ateratzen da eta arrakasta handia du gainera. Errezeta aitarengandik dator, egiteko modua aldatu da baina errezeta berdinarekin jarraitzen dugu.

Zuen aitonak Donostian ikasi zuten gozogintza. Ondorengoek etxean ikasi al duzue?

Bai etxean ikasi dugu, baina, horrez gain hainbat eta hainbat ikastaro egin ditugu. Beste gozotegi batzuetara joan gara edo gozogileak ere ekarri ditugu gure obradorera lan egiteko modu berriak irakastera. Gurean gozogintza ikasitako bizpahiruk ondoren jarri zuten beraien kontura gozotegia.

Hemen orain arte ez da izan gozogintza eskolarik, orain Bilbon gremioak badu eskola bat. Baina, aitonak esaten zuenez 1920-23 artean Donostian lanean aritu zen



Gaur egun Joxe Mari Unanuek darama gozotegiko martxa.

gozotegi batetan lantegiko burua bulgariarra zuen, lehen mundu gerratik bertatik alde egindakoa. Bulgariar hau Moskuko gozogintza eskolan ikasitakoa omen zen. Beraz, XIX. mende bukaeran bazen gozogintza eskola Moskun.

Bitxikeriak ere izango dituzue.

Garai batetan Lazkaora Infantadoko dukea etortzen zen. Bere sukaldaria oso eza-guna zen, Teodoro Barbagin Mas. Bera oso jakituna zen, gozogintzako hainbat liburu idatzitakoa eta garai hartako bi edo hiru aldizkarietako harpidedun egin gintuen, hemen ezezagunak ziren aldizkariak.

Orain dela hamar bat urte Gipuzkoako hainbat gozogile elkartu ginen gure etxean eta Gipuzkoako tarta sortu genuen. Sagarrarekin eta gaztarekin egiten da eta San Inazio inguruan saltzen da gehienbat. Hiru edo lau egun iraun ditzakeen tarta da arratsaldean kafesnearekin hartzeko egokia.

Urteko garai ezberdinetan gozo ezberdinak izaten dira.

Bai, eguberrietan turroiak, arrakasta handia duen koko-

drilo turroia eta angira pasak. Hauetan kaxa barrukoa baino garestia goa ateratzen da. Erregetan erroskoa, hau izaten da urteko lanik gehieneko garaia. Guk garai batean bezala baba jartzen dugu barruan, plastikoa bilduta jartzen dugu. Abuztuan babak erosi berdinenak aukeratu eta amona aritzen da banaka plastikoa biltzen. Sanblasetan San Blas opilak, Santu guztien egunean 'santuen hezurak' eta buñueloak. Hauek denak bere garaian saltzen dira, garaiz kanpo ez da batere saltzen.

Gozogileak jaten al du gozorik?

Bai, egunero, laneko atsedetan kafesnearekin pastela jaten dugu.

Zein da gozogilearen lanik gogorrena?

Hemen lan gogorrik ez dago. Okerrena da noiz eta jai egun gehiago izan lan gehiago izaten dugula, baina, horretara ohituta gaude. Goizetan ere goiz jaiki beharra dago, hori langile berrientzat gogorra egiten da. Lehen lana ematen zuen hojaldrea egiteko rodillo edo arrabolarekin oreka zabal-tzeak, orain hori makina automatizatu batek egiten du.

Igartzako Poltsikoko Ikuskizunak

Kultura Batzordeak Igartzako Monumentu Multzoan egingo diren ekitaldi sorta antolatu ditu. Aurtengoa hirugarren ekitaldia izango da. 'Igartzako poltsikoko Ikuskizunak' deritzon ekitaldian sei musika ikuskizun eskainiko dira eta Igartzan antolatzen diren bisita gidatueta argazki erakusketa bat ikusteko aukera izango da.

Ekitaldi bakoitzerako sarriera 4 eurotan salduko da. Jardunaldian zehar eskainitako ikuskizun guztietara gerturatzeko asmorik izatekotan abonatu bat eskuratu daiteke 20 eurotan. Prezio honen barruan Igartzako Monumentu Multzora bisita gidatua egiteko eskaintza ematen delarik. Emanaldi guztiak 21:00etan hasiko dira.

Ekainak 4: Barraca Selva Gabriel Gullian (Potato, Tumbaito eta La Ferreria del Son taldeetako kide ohia) uruguayarraren izaerak markatzen duen taldea. Candombea, rocka eta erritmo latino-amerikar desberdinak dira talde hau desberdin egiten dutenak, eta baita eguneroko poesiak ere.

Ekainak 11: Bidinte. Madrilera bertaratuak afrikar musikari gazteen generazio-



ko kide esanguratsua dugu. Artista desberdinekin aritu da lanean perkusioa joaz, konpositore moduan eta baita kantari moduan ere.

Ekainak 10: Polar. Talde balentziar honek pop musika intimista egiten du.

Ekainak 17: Petti. Bakarlarari nafar hau, gitarra fina eta bluesmana dugu, bere kantei ematen dien interpretazio basati nahiz poetikoarekin. Alde akustiko eta elektrikoa nahastuko dituen 4. lan bat prestatzen ari da.

Ekainak 24: Anthony Reynolds. Musika munduan esparru anitzetan aritutako artista britaniar honek pop-rocka egiten du eta bere lehen diskoa kaleratuko du bakarlarari moduan aurtan, 'New York'.

Jaiei errebasoa

Loinatzetan izandako hainbat lehiaketan irabazleak hauek dira:

Azoka berezia: Posturik dotoreenaren saria: Gabiriko Agerberri baserriko Maria Etxezarretarentzat izan zen. Bertako produktuei ematen zaien sarietan berriz, Lazkaoko Altune baserriko Maria Jesus Mujikak eraman zuen. Loreetan, Zaldibiako Iñaki Azanza izan zen irabazlea.

Erakusleihenetan: Alzurik irabazi du lehenengo saria.

Lagunarteko futbol txapelketa: Auskalo taldea gailendu zen Xisti-



Ursuya eta La Salle-San Jose elkartrukea

La Salle-San Jose ikastetxeko 2. DBHko ikasleak elkartrukea egiten dute Hasparrengo Ursuya ikastetxeko ikasleekin. Helburu nagusiak; hizkuntza praktikatzea, familiak ezagutzea eta batez ere, kultura desberdinak baloratzea izaten dira. Duela bost urte hasi ziren ekimen honekin eta aurtan martxoko azken astean burutu dute elkartrukea. Hasparrenen eta bere inguruneak ezagutzeko aukera izan zuten beasaindarrek.

'Aurtzaka 25 urte, Dantza Beasainen'

1979. urtean sortu zen Aurtzaka dantza taldeak, joan den mendean zehar Beasainen egon ziren dantza talde guztien lekukoa jaso du. Aurtan, 25. urteurrena ospatzen dutela eta, argazki bilduma osatu dute, eta Beasainen dantzak izan duen bilakaera islatzen da antolatu duten erakusketan. Ekainaren 4tik azaroaren 14ra bitartean Igartzako jauregian egongo dira ikusgai.

KzGunean ikastaroak

Ekainerako ikastaro desberdinak antolatu dituzte: ordenadoreen erabilerako sarrera, web orrietan nabigatzea, web orriak bilatzea, posta elektronikoa eta bideokonferentziak besteak beste. Ekainaren 11ra: 9:00-11:00 eta ekainaren 14tik 25ra: 9:00-11:00, 11:00-13:00, 15:00-17:00.

Odol ateraldia

Odol emaileen ordezkariak jakinarazten du, ekainaren 15ean egingo dela hurrengo odol ateratzea. Urbi etxeko lokaletan, arratsaldeko 6etatik aurrera.

Nekane Altuna

cious Blues taldearen aurka jokatuak partiduan, 4 eta 1eko azken emaitzarekin.

Elkarteen arteko sukaldaritza: indabak txirlekin, Aizkorri elkarteak prestatutakoak irabazi zuen. Makailoa berriz, Murumendi elkarteak prestatu zuten hoberen.

Dantza lehiaketa: Asier Ena eta Maite Lazkano bergararrak izan ziren garaile.

Beasain Hiria argazki lehiaketa: Andres Indurainek irabazi du.



GARMENDIA


Teilak eta teilatuak

*Egur tratamenduak
autoκlabean*

diselnu: acvultimedia




TEILATUAK



ZUREZKO EGITURAK



HODIAK



EGUR TRATAMENDUAK

Mallutz Poligonoa, 25 - 26 Pab. | 20240 ORDIZIA | Tel. 943 16 10 32 | Faxe. 943 16 08 42
www.garmendiatejas.com | www.tejasgarmendia.com | garmendia@garmendiatejas.com

LAZKAO

**Etxebizitza
unifamiliarra:**

- Lorategia
- Eguzkitsua
- Goi mailako materialak



943 16 10 32



www.acvultimedia.com



Katekesia eta jaunartzeak

Beste herri askotan bezala, Araman ere katekesiseko saioak amatu dira eta bertan jardun diren hiru haurrek, Olatz, Eider eta Ikerrek, 2. ikasturtea osatu dute.

Bukaera modura, joan den maiatzaren 23an Haritz Insaustiren jaunartzean parte hartu zuten, bere ondoan ego-

nez, datorren urtean beraiek izango baitira protagonistak.

Urtean zehar oso gustura ibili dira haurrak ostegunero bilduaz eta batzuk amaitu beharra penaz hartu dute. Datorren urteari begira gelditzen gara beraz.



Haritz bere jaunartze egunean.



Maite Olazabal (katekista) Olatz, Eider eta Iker, Imanol Goikoetxea apaizarekin.

Udaleku irekiak

Dagoeneko uda bertan dugu eta gure haurrek eskola amaitzeaz dute. Uda garai berezia izaten da gure haurrentzat denbora asko izaten baitute lagunekin jolasteko eta aktibitate ezberdinak burutzeko.

Hau dela eta iaz udaleku irekiak jarri zituen martxan Udalak, non herriko haurrek goiza monitore baten laguntzaz aktibitate ezberdinak egiten ematen zuten. Iazko esperientzia guztiz positiboa izan zela ikusirik aurten beronekin jarraitzea erabaki du Udalak.

Hau dela eta guraso guztiei dei egiten die ekainaren 19an (osteguna), arratsaldeko 7etan Udaletxean burutuko den bilera agertzeko. Bilera honetan udalekuei buruz hitzegingo da eta gogoratu guztion aportazioak eta iritziak ezinbestekoak direla haurrek uda ahaztezina izan dezaten.

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



**Jauregi
TOLDOAK**

BEASAIN
943 88 02 43 - 943 88 01 33



Nafarroa
Etorbidea, 9

943 88 94 82

BEASAIN

Aholkularitza

ASEPLAN

Abokautak - Ekonomilariak

Tel.: 943 887 129

Oriamendi 15, behe

BEASAIN

Tel.: 943 086 420

J.M. Iturriotz, z/g

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak

e txekin

www.txekin.net

Festa aurrerapenak

● **XXVIII. Euskadiko Dantza txapelketa.** Izen ematea ekainaren 11 arte, Eusko Dantzarien Biltzarrean.

● **Txirrindulari probak.** Ekainaren 21ean jubenil mailako Gipuzkoako Itzuliaren 4. eta azken etapa. Ekainaren 26an elite eta 23 urtez azpiko San Joan proba.

● **Pelota.** San Joan eguneko partidua estelarra: Martin Alustiza eta Xabier Imaz, Otaegi eta Errandonearen aurka.

Igerilekua prest

San Joanak aurretik irekita abuztu amaiera arte izango da aurtengo denboraldia. Aurtengorako, zelaia altxatuta, ureztapen sistema automatikoa jarri da eta belar hazia bota da. Koadro elektriko, eserleku eta paperontzi berriak ere jarri dira. Bertan zerbitzua eskaintzeko bi taldek eman zuten izena. Zozketa bidez, Babina Zivec, Nikolas Paglialunga eta Angeles Sosa egokitu zaie udarako lana.

Igeriketa ikastaroa. Urtero bezala uztailen zehar, eguerdian. Informazio gehiago udaletxean.

Bost herri artekoa

Gaztetxoaren artean pelota bultzatu asmoz, Segurako Kirol elkarteak antolaturik, maiatzaren 23an hasi zen Segura, Zegama, Idiazabal, Mutiloa eta Zerainen arteko txapelketa. 9tik 14 urte arte, 29 bikote ari dira benjamin, alebin eta infantiletan. Finalak ekainaren 20an jokatu dira Zegaman.

Aizkorriko maratokia

Maiatzaren 23ko III. mendi maratokia, Arkaitz Sodupe,

Idiazabal-Zegama errepide zabalkuntza Paraleloan bidegorria eraikiko da

Aurtengo legeitzaldian onartuta, Diputazioak bi fasetan burutuko du Idiazabaldik Zegamarako errepidearen zabalketa. 2005eko udaberrian Ampo aurretik Kendu parerainoko lanak hasiko dituzte, gaur egungo errepide bera zabalduz eta hobetuz. Honen paraleloan, Idiazabaldik Segurara metro eta erdiko zabalerako bidegorria eraikiko da. Dagoeneko, lurjabee-

kin desjabetze prozesua hasia da.

2007an bigarren fasea

Bi urte geroago, Zubiberri paretik Zegamarainoko obrak hasiko dituzte. Hemen ere, errepide zaharra egokitu eta zabaltzeaz gain, bidegorria eraikiko dute paraleloan. Gastu guztiak Diputazioaren gain joango dira.

Zeles Sodupe, Gregorio Zabaleta eta Felipe Rodriguez herriarrek parte hartu zuten. Arkaitzek 27. egin zuen (4.47.15), 45 goierritarren artean lehena izan zen. Zeles, berriz, B beterranoen mailan, 5. geratu zen.

Xepeño Agirre irabazle

Xepeño Agirrek Lehendakari saria eskuratu zuen maiatzaren 23ko Olaberriko saioan eta 30eko Ategorrietakoa, guztira 96 birla jota. Olaberriko botaldian gainera bera izan zen irabazle 49 birlarekin. Ekainaren 12an Araban jokatu den Euskadiko txapelketarako, Xepeño Agirre, Imanol Agirre, Antonio Agirre, Martxeliño Agirre eta Jexux Mari Intxausti daude sailkatuak.

Arantzazura joan-etorria

Segurako zikloturisten taldeak antolatuta, goizeko 9etan

plazatik irtenda, Arantzazura egingo dute joan-etorria. Uztailaren 3an izango da Kostako itzulia.

Txirrindulari elastikoak. Modelo eta neurri ezberdinetan atera zituzten mailotak eta kuloteak udaletxean daude salgai.

Futbola

Futbol denboraldia amaitu dute herriko taldeek. Errejonalak 7. egin du eta jubenilak 12.. Kadeteak eta infantilak mailaz jaitsi dira.

Labur-labur

● **Ermasoko ezitia saritua.** Arabako Antoñanan urtero egin ohi den mendiko eztien lehiaketan hiru onenen artean geratu zen ermasotarrek aurkeztutako txilardun ezitia, maiatzaren 23an.

● **Trinitate kofradia.** Ekainaren 6ko mezen aurretik eta

ondoren egingo da urteroko kibraketa, ospitalpean jarriko den mahaian.

● **Idiazabaldarre harrera.** Ekainaren 6an San Adriandik erromesaldian datozenei, Malkorra parean harrera egin eta hamaiketako eskainiko die udalak plazan.

● **0-2 haur eskola.** Irailean irekitzeko den haur eskola arriskuan dago, bi lagunek besterik ez baitute eman izena. Udala, 3 urtekoak ere sartu asmoz, atzo zen biltzekoa hezkuntza saileko ordezkariekin.

● **Ikastaro amaierako kontzertua.** Tobera musika eskolako ikasleek kurtso amaierako emanaldia eskainiko dute ekainaren 8an, 18:30ean Foru Aldundiaren aterpetxean.

● **Udako aisialdia.** San Joanak ondoren hasita, uztailen zehar. 2tik 12 urte bitarteko haurrentzat. Begirale lan egin nahi dutenek nahiz haurrek udaletxean eman behar dute izena.

● **Obra pribatuak udal laguntzak.** Segurako hirigunean obra pribatuak burutzeko aholkularitza eta laguntza ekonomikoen plana gauzatua du udalak. Informazio gehiago udaletxean.

● **Hauteskunde mahaiak.** Ekainaren 13an 'A' mahaian, Xabier Etxeberria, Irene Altuna eta Cecilia Aranburu egongo dira. 'B' mahaian, Iñigo Otegi, Amparo Salceda eta Iker Murgiondo.

Joseba Telleria

Korpus Eguna

Meza eta prozesioa. Ekainaren 13an ospatuko da. Goizeko 11etan emango da Korpus eguneko meza. Ondoren, kanpai bueltakoak lagun direla

prozesioa kaleetan zehar. Txistulariak, kofradien estandarteak, korua, aingeruak, paliopon kustumak, udal agintariak eta herritarrek izango dira bertan. Antonkalene aurrean eta Kaleguren jarriko diren aldareetan geldialdiak egingo dituzte.

Ardo partiketa eta herri afaria. Iluntzean, udalak jarrita herriko agazilak barrikatik banatuko die ardoa herritarrei. Ondoren, koadrilaka, taldeka nahiz familiak afalduz elkartuko da jendea plazan.



Ekainak 10: Cortus Christi eguna

Festak amaituta, 'Corpus Christi' eguna da hurrengo festa egun nagusia, herri jaien errepikapena hain zuzen ere. Goizeko 10etan diana izango da Legorretako Musika eskolako ikasleekin.

Goizeko 11,30etatik aurrera XXVI. Herri Krosa izango da. 16 urtetik aurrerakoek herriarrak izan beharko dute eta Krosaren luzera 8 kilometrokoa izango da. Izen ematea ordu bete lehenago izango da Bilkoin Elkartean edo internet bidez, www.herrikrossa.com web orrialdean. Izen ematea doan izango da.

Eguerdiko letan sari bana-ketari ekingo zaio eta lehenengo hiru gizonezko eta emakumezkoek saria izango dute eta baita herriko lehen sailkatuak ere.

Partehartzea bultzatze asmoz partehartzaile guztien artean sari ugari zozketatuko dira. Amaitzeko, Bilkoin Elkar-teak hamaiketako eder bat eskainiko dio partaide orori

herriko plazan.

Festarekin jarraituz, arratsaldeko 6etan XV. Ardo Dastatze Txapelketa izango da Zurrut koadrilak antolatutik. Bertan, lehenengo proba ohizkoa izango da eta bigarrena berriz, aldatu egingo da urtero gertatu ohi den legez. Irabazleak, txapela, dozenerdi dastaketa edalontzi eta 'Crianza' ardo kaxa bat irabaziko du, guzti hau inolako izen ematerik ordaindu gabe. Jarraian, urtero bezala, Udallak ardoa eskainiko du herri-tar eta bisitari guztientzat. Guzti hau Iraunkorrek Txar-rangak alaitua.

Honen ondoren izango dira usuariozko meriendak herriko plazan. Usuarioaren barruan karakolak eta zahagi ardo daude, nahiz eta gaur egun denetik jan eta edaten den. Ondoren eta goizaldera arte, kalejira eta dantza saioa izango da Iraunkorrek txar-garekin.

Zelai Amenabarro

Udaleku irekiak

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloko haurrekin hiru astetako udaleku irekia antolatuko da ekainaren 28tik uztailaren 16ra, biak barne. Esperientzi honekin ikasturtearen jarraipena egin nahi da, bai euskararen erabilera bultzatzeko nola ikasleen arteko harreman pertsonalen arloa lantzeko.

Astelehenetik ostiralera egingo dugu goizeko 10etatik 1era, jokoak, antzerkia, irteerak eta abar burutuko dira.

Haurren izen ematea udaletxean izango da ekainaren 18ra arte. Begiraleena, aldiz, ekainaren 11ra arte. Honakoak dira begiraleei eskatuko zaizkien baldintzak: gutxienez 18 urte beteak izan, Legorretan errolatua egon, euskaraz ezin hobe mintzatu eta ikasketa hauetako batean gutxienez 3 urte ikasiak izan: Magisteritza, Pedagogia, Psikologia, SHEE (Soin Hezkuntzarako Euskal Erakundea) edo Begirale Titulua.

Ugaro herri ikastetxea

Ate irekien eguna

GOIERRITARRAREN azken alean esan bezala, gaur arratsaldean izango da Ugaro Herri Ikastetxeko 'Ate Irekien Eguna'. Hiru urtez behin ospatzen da gaur egun eta aurten egokitu da. Arratsaldeko 7etan irekiko dira ateak, harrera txiki bat egin eta eskolako baliabide, lanketa eta toki interesgarriak ikusi ahal izateko. Ondoren, 'lunch' txiki baina gozo bat dastatuaz amaiera emango zaio ekintza honi.

Irteerak



Herriko Festak hasi aurretik, maiatzaren 17 eta 18an Herri Eskolako Haur Hezkuntzan dabilen haurrak Hondarribian izan ziren. Argazkia, hondartzatik irtetzeko momentu batean ateratakoa da.



1. eta 2. mailakoak, berriz, Beasainen izan ziren. Igartza Monumentu Gunean. Besteak beste, gazta nola egiten den ikasi zuten. Argazkian ageri dira bertaratu ziren gaztetxoak.

Musika eskolako matrikula epea

Gaur, ekainak 4, amaituko da 2004-2005 ikasturterako Musika Eskolan izena emateko epea. Interesatuak, Udaletxera jo beharko dute bulego orduetan eta 32 euro ordaindu.

Hitzaldia herri zineman

Gaur arratsaldeko 5,30etan, Aldaieta Jubilatuta Elkar-teak Kutxaren laguntzarekin antolatuta, 'Arrendamientos urbanos y responsabilidad civil' izena daraman hitzaldia izango da Herri Zinemaren Alejandra Muruaren eskutik. Ondoren, 'lunch' bat eskainiko da Aldaieta Jubilatuta Elkartean.

Itsasondo



Mendi txangoa Oriora

Ekainaren 12an, larunbata, mendi ibilaldia burutuko da Itsasondotik Oriora bitartean.

Goizeko 6etan jarri da hitzordua, plazan, ibilaldiari hasiera emateko. Ondoren hurrengo lekuetatik igaroko

dira Oriora bidean; Santa Marina, Santa Ageda, Zelatun, Iturriotz, Aia eta azkenik Orio.

Ibilaldi hau egiteko 8 ordu inguru beharko direla aurrakusten da. Oriora iritsi ondo-

KZ gunea

Kzgunean ematen ziren interneteko ikastaroak amaitutzat eman diren arren, Kzgunek irekita jarraitzen du eta nahi duen oro bertara daiteke interneten nabigatzera. Horretarako giltza Udaletxean aurkituko du. Irekia egongo den ordutegia honakoa da: **Goizetan:** astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara. **Arratsalde:** astelehenetan, 18:00etatik 19:00etara; astearte eta ostiraletan, 18:30etik 19:30etara.

Bestalde Kzguneko begiraleak bisitaldiak egingo ditu Itsasondoko Kzgunera bertako erabiltzaileei sortzen zaizkien zailtasunak argitzeko. Bestetik erabiltzaileek hainbat ikastaro labur egiteko aukera ere izango dute. Begiralea izango den ordutegia honakoa da: ekainak 14: (9:00-13:00) eta ekainak 28: (9:00-13:00)

ren bertako Errota Jatetxean dutxa hartu eta ondoren bazkaria izango da bertan. Bazkalondoa Orioko ingurumariak ezagutzeko aukera izango da eta nahi duenak bertan parrandaxoa egiteko parada ere izango du. Bueltan etortzeko herritarrek eramango dituzten kotxeak izango dira zain.

Ibilaldi honetan parte hartu nahi duenak ekainaren 7rako izena eman behar du. Honetarako 943 883978 telefonora deitu eta Dani-gatik galdetu behar du. Kontutan hartu bazkaria eta bueltatzeko autoak behar bezala antolatze beharrezkoa dela zenbat joango diren lehenbailehen jakitea.

Zaldibia

Udako jarduerak

Udan egingo diren jarduerak ezberdinetan izena emateko epea ekainaren 10ean amaituko da. Kultur etxean eman behar da izena (943160338). Jarraian dituzue antolatu diren ekintzak:

Udako jarduerak: uztailearen 1etik 23ra. Goizez. Matrikula 12 euro.

Gaztetxoan jarduerak: uztailean, mendi irteera. Matrikula 10 euro.

Piraguismoa: uztailearen 12tik 17ra. Matrikula 15 euro.

Tenisa: Uztailean, arratsalde. Matrikula: haurrak 12 euro eta helduek 20 euro.

Hipika: ekainaren 28tik uztailearen 9ra. Haurrak. Matrikula 35 euro.

Aerobic: Uztailean. Matrikula: gaztetxoek 12 euro eta helduek 20 euro.

Iñaki Perurenarekin solasaldia

Ekainaren 9an, arratsaldeko 7etan, Zahar Egoitzan, Iñaki Perurena harrijasotzailearekin solasaldia izango da. 'Euskaldunok lanetik kirolera' gaiak mintzatuko da.

Musika Eskolako saioa

Ekainaren 15ean, arratsaldeko 7etan, Herri antzokian, Musika eskolako ikasleen ikasturte amaierako kontzertua izango da.

Ikasturte amaierako festa eskolan

Lardizabal eskolak ere, ikasturte amaiera ospatzeko festa berezia egingo du ekainaren 18an, 14:00etan, Herri Antzokian. Aurretik, ekainaren 11n, antzerki tailerra burutuko dute 10:00etan, Antzokian bertan.



Arriskua Kateko errepidean

Katea auzoko herritarrak eta Udala arduratuta daude GI-2637 errepidean sortu den arriskuarekin. Kezka aspaldikoa da, baina maiatzaren erdialdeaz geroztik areagotu egin da. Beheko bideak (Kalbario ondotik pasatzen dena) eta Kateko errepideak bat egiten duten gunean istripua gertatu zen maiatzaren 14an. Kamioi bat beheko bidetik GI-2637 errepidera ateratzen ari zela, Segura aldetik zetorren auto batek kamioiarekin txoke egin zuen.

Autoen abiadura handiak eta halabeharrez beheko bidea erabili behar duten ka-

mioiek sortu dute arazoa. Hori dela eta auzokoek eta Udalak bidea zabaltzeko lanak lehenbailehen hasteko eskatu diote Foru Aldundiari. Udalaren esanetan, proiektua egin da dago, baina lanak hasterako urtebete pasatu liteke. Auzotarrek diote tarte horretan istripu larriren bat gertatu litekeela, eta berandu gabe obrak hasteko eskatu dute.

Arazoak sortu dituen gunean mugimendu handia egoten da. Baserrietarako bi bide daude, eta inguru horretan Herri Eskolako autobusak lau geldialdi egiten ditu egunean.

Indarzabal

Udal hauteskundeak egin eta urte betera Indarzabal plataformak protesta ekitaldiak egin ditu. Taldeak, Udaletxean dagoen ordezkaritza ez duela eskuratu salatu du.

Indarzabalek (Espainiako justiziak legez kanpo utzi zuen taldea) 2 zinegotzi eskuratzeko adina boto lortu zituen. Udala eratzekoan, EA-PNV koalizioko hautetsiek legearen arabera zegozkien zinegotzi postuetatik bi hutsik utzi zituzten.

San Adriango erromeria

Igande honetan, ekainak 6, ospatuko da San Adriango erromeria. Autobusa goizeko 7etan abiatuko da Mujika jaretxe paretik. Idiazabaldik Otzaurterako bidea egingo du autobusak eta handik gora oinez ekin beharko zaio ibilbideari.

Erromerian parte hartzen dutenei Udalak ematen dizkien baleak herriko dendetan eta tabernetan erabili behar dira ekainaren 13a baino lehen.

Santiago Bidea

Idiazabaldik pasatzen den Santiago Bideari buruzko kontuak eta xehetasunak kontatuko ditu Pedro Mari Mugikak. Hitzaldia ostiral honetan, ekainak 4, izango da arratsaldeko 7,30etan Pilarreneako ganbaran.

Uda kanpaina

5 eta 12 urteko hurrek Uda kanpainan parte hartu ahal izango dute ekainaren 28tik uztailaren 23ra. Kirola, jolasa eta eskulanak nahasten ditu ekimenak. Ekainaren 22rako eman behar da izena Udaletxean.

Musika Eskola

Musika Eskolan izena lehendabiziko aldiz eman nahi dutenek eta hurrengo ikasturtean musika tresnak ikasten hasi nahi dutenek ekainaren 16tik 28ra eman behar dute izena Udaletxean.

Xabier Urteaga



Aste Berdearen barruko ekitaldiak

Maiatzaren 31tik ekainaren 6a bitartean Europako hainbat herri eta hiritan, ingurumenaren aldeko Aste Berdea izango da eta asko izango dira honen barruan antolatuko diren ekintza eta ekitaldiak. Gure herrian ere ingurume-

nak, naturak daukan garrantziaz jabeturik aste honen barruan bi ekitaldi antolatu ditu Mutiloako Udalak. Bata astelehenean egin zen Kultur etxean, egun horretan Euskal Herriko Unibertsitateko Arturo Elosegi irakasleak eman

zuen hitzaldia, basoaren kontserbazio gaitzat harturik.

Bestalde igande honetan ekainaren 6an irteera bat antolatuko da herri lurak eza gutzeko asmoarekin Aizpuru-
ra. Goizeko 8,30etan herriko plazatik abiatu eta aipatutako

tokira joan nahi da. Ondoren Ostatun hamaiketako eskainiko da.

Ekitaldi hauekin ingurumena denon esku dagoela adierazi nahi da.

Iñaki Ugalde

Kultur etxean langile berria

Maiatzaren 18a geroztik, Saioa Azkona zegamarra hasi da Kultur etxean lanean. Bera arduratuko da liburutegiko dinamika eta ludotekaz. Bere ordutegia arratsaldeko 4,30etatik 8,30etara izango da.


Kanaloia
Bajanteak
Fatxadak

...

Lan bertikalak S.L.

Pintura
Teilatuak
Tximiniak

...



Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN



BARANDIARAN
Zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Hamar haurrek egingo dute jaunartzea

Igandean, ekainak 6, herriko hamar haurrek hartuko dute lehenengo jaunartzea. Elizkizuna eguerdiko 12etatik aurrera herriko Ander Deunaren parrokian ospatu da.

Beraz igandean hamar haur izango ditugu parroko altarean, benetan garrantzitsua den lehenengo jaunartze egun pozgarria bizitzeko asmoz. Bost neska eta bost mutil izango dira: Ander Alonso, Alvaro De Carballo, Eneko Etxeberria, Larraitz Gerena-barrena, Irune Hernandez, Ei-

der Irizar, Eneko Lerma, Maialen Mujika, Josune Sarasate eta Iker Urreta dira.

Aipatu haurrentzat lehenengo jaunartze eguna egun pozgarria da baita gure herri. Beraien guraso, hezitzaile, senditarteko eta azken urteetan herriko parroko izan dugun Klemente Zelaiarentzat ere desiorik hoberenak, haurrentzat igandean emango duten pausoa etenik gabeko bidearen abiapuntua izan dadila. Argazkian Jauna hartuko dutenak, elizaren atarian.



Parrokian kurtso amaierako festa

Oraindik ere parroko berriekin jarraituz festa baten berri eman beharrean aurkitzen gara. Hain zuzen aurtengoan ere Kristau ikasbideko hezitzaile eta haurrek ikasturte amaierako festa antolatu baitute.

Festa datorren ekainaren 21ean arratsaldean eliz atarian burutzeko asmoa dute. Beraz guztiei ongi igaro dezazuela opa dizuegu, aldi berean urte guztian haurrak hezitzen egin izan duen lana goraiatu eta txalotuz. Jaso ezazue herriko parroko Klemente Zelaia eta hezitzaile guztiek ixilean eginiko lanarekiko eskertza eta haurrei berriz oporraldi ona izan dezazuela opa dizuegu.

Aitziber Murua



orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

Joxe Mari Matxaini herriaren esker ona

San Isidro egunean, Sokobio-ko Joxe Mari Matxain omen-
du zuen udalak. Aginte maki-
larekin, 1979tik 2003. urte bi-
tarteetan udaletxean egindako
lana eskertu nahi izan zuten,
alkate eta zinegotzi karguan
urte asko egin baititu. Bi le-
gegintzalditan izan da alkate
Matxain: 1987an eta aurreko
legegintzaldian.

Urte hauetan guztietan lan
handia egin du Matxainek.
Arazoak arazo, herria aurrera
ateratzea izan du beti helburu.
Baserriak berritzea eta etxe
berrien lehenengo urbaniza-
zioa egokitu zitzaion Matxai-
ni alkatetzako lehenengo ur-
teetan. "Nahikoa lana eman
zigun. Etxe berriak egin geni-
tuen herriari haize berriak
emateko". Geroago, zinego-
tzi zegoela, beste urbanizazio
bat ere egin zuten eta orain
beste bat egiten ari dira. "Ho-
rrek esan nahi du herria au-
rrera doala", zehaztu du
gaintzarrek.

Zerbitzuak hobetzen

Azkeneko urteetan, herrian
zerbitzuak hobetzen eta gehi-
tzen saiatu izan dira. Emai-
tzak hor daude.

Ur kontuetan esate batera-
ko, urte askotako arazoak
konponduta daude Matxainek
azpimarratu nahi izan due-
nez. "Pedro Zunzunegik, son-
deoak egin eta ura ekarri
zuen herrira. 20 bat urtean
irtenbidea izan zen baina
kontsumoak gora egin zue-
nez, ur arazoa berriz sortu zi-
tzaigun. Ura kamioi zisterne-
kin ekartzen hasi ginen. Zis-
ternekin ezin zitekeen aurrera

egin. Gipuzkoako Ur Kon-
tsortzioan sartu ginen eta
Gaintzarentzat oso onuraga-
rria izan da. Arriarandik ura
ekarri digute eta orain Gaint-
zan igerilekuak ere egin li-
tezke, inoiz Gaintzan ezagutu
ez dena". Ur falta izatea zer
den ondo probatuta daude
Gaintzan: "horrek ere hase-
rre handiak ekartzen ditu.
Batak besteak baino gehiago
gastatzen duela..."

Sasieta Mankomunitatea
ere Matxain alkate zela sortu
zen. "Herriko zaborrak ingu-
ruko basoetara botatzen ge-
nituen eta inguruko herrieta-
koak ere ekartzen zituzten.
Bazter guztiak zikinduta izat-
en ziren eta Sasietak ere me-
sede handia egin digu".

Goieki ere sortu zuten es-
kualdeko alkateek Matxain
alkate zela. "Zerbitzu han-
diak ematen dizkie eskualde-
ko herriei. Aholkularitza al-



Joxe Mari Matxain. Aginte makilarekin batera emandako oroigarriak zera zioen: "Goiz Argi"-tzen duenez zuen etxean, eguna luzea duzu, bai uda eta bai negu. Beraz, postari lanak bukatu eta makilarekin edo gabe, kargudun edo kargu gabe, herriak eskertzen dizu orain arte egin duzuna eta aurrera ere lanean jarraituko duzula espero dugu".

detik laguntza handia ematen
dute".

40 urtez postari

Herriko postaria ere bada Joxe Mari Matxain. 1964an hasi
zen postari lanean. Makina bat karta partitu du harrezkero.
Garaiak ere asko aldatu dira lanbide honetan. "Karteroak
gehienak kontu txarrak ematen ditu gaur egun. Bata besteari
idaztea asko jaitxi da. Gu hasi ginenean, Gabonetako zorion
postalak izugarri bidaltzen ziren. Gaurko egunean, telefonoz
egiten da. Gaur egun bankuetxeek ematen dute lan asko. Pro-
paganda ere izugarri banatzen da".

Duela 40 urte bizikletaz hasi zen postari lanean. Ordiziara
jaitxi eta Gaintzara ekartzen zituen eskutitzak. "Ni bizikletaz
ibiltzen nintzen baina legez mandoa genuen. Garai haietan,
mandoaren pentsuarentzat dirua ematen ziguten. Orain dela
gutxi arte motorrean ibiltzen ginen eta gaur egun kotxea".

Eskutitz guztiak herriko tabernan uzten zituen hasieran,
pilan, norberak norberarena hartzeko. "Buzoiak leku batean
jartzeko ideia sortu zitzaigun. Gaur egun herri gehienetan
dago horrela".

Desilusioa

Euskal Herriko egoera politi-
koa dela eta guztiz desilusio-
naturik dagoela azpimarratu
digu Matxainek. "1979an
izugarriko ilusioarekin sartu
nintzen. Atera berriz, desilu-
sionatuta. Gaintzan ez dau-
kagu politikarik baina nire
desilusiorik handiena Euskal
Herrian daukagun egoera da.
Orain hauteskundeak bada-
toz, batzuk ez daukate hitzik
eta botorik, eta hori ezin lite-
ke horrela izan. Konponbide-
ren bat behar da. Kanpotik
daukagun erasoak ere hor
daude. Ni udaletxean sartu
nintzenean, pentsatzen nuen
arazoak lehenago konpondu-
ko zirela baina nik uste ara-
zoa txikitzen joan beharrean
handitzen doala".



Igandean ospatuko da udaberriko azken erromeria

Datorren igandean, ekainak 6, iluntzeko 6etatik 8etara hitzordua dute dantzazale guztiek Zeraingo plazan. 'Zerain Dantza Zain' ekimeneko bosgarren dantzaldi honetan ere, aurrekoetan izan den giro ona berdindu edo hobetu nahi da. Hori lortzeko, Euskal Herriko Trikitilari Elkarteko trikitilariak eta Patxi Perez dantza irakasle eta sustatzaileak beren esku dagoen guztia egingo dute. Musika alaiarekin eta umore onarekin denak ondo pasatzeko aukera izango dute.

Aurreko erromerietan izan duten arrakasta ikusita, anto-

latzaileak oso gustura daude proiektu hau jasotzen ari den erantzunarekin. Jendeak dantzarako gogoia baduela eta euskal kulturaren ondare diren erromerietan XXI. mendean ere tokia badutelakoan sortu zen ekimen hau. Eta helburuak betetzen ari direla uste dute antolatzaileek. Horregatik, ondo pasatzeko gogoia duten denak Zeraina etor daitezela dei egiten dute antolatzaileek. Egunpasa eder bat egiteko aukera ezin hobea izango baita bihar.

Jon Muñoa



Aizkorriko II. bira Zeraindik pasa zen

Pasa den maiatzaren 9an, Beasaingo Aizkorri Mendizale elkarteak antolatutako Aizkorriko II. Bira ibilaldi neurtua Zeraindik pasa zen. Beasaingik irten eta Aizkorritik bueltan, atzera Beasainera itzultzen den 52km-ko martxa da eta Zeraindik itzuleran pasatzen da. Lehenengoa eguerdiko 12ak aldera pasa zen eta azkena pasatzerako arratsaldeko 5ak edo izango ziren. Sasoi bikaineko ibiltari eta mendizale asko izan genituen herrian.

Lau zeraindar ibilaldian

Lau zeraindar gaztek parte hartu zuten ibilaldian eta guztiek ere sasoi bikainean iritsi ziren Beasainera. Iñaki Zabalo eta Aitor Zabalo anaiak, eta Iker Aizpeolea eta Iban Aizpeolea lehenengoa izan ziren martxa burutu zutenak.

Mandioa taberna itxita ekainaren 14tik 30era

Mandio taberna itxita egongo da datorren ekainaren 14tik ekainaren 30era arte. Ondo merezitako oporraldia izango dute bi astez. Ekainaren 14an ateak itxi eta ez dituzte irekiko uztailaren lehenengora arte.

Herri Irratia
RADIO POPULAR
Goierri 105.2 fm
Gaur ere zure herria gure uhinetan



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA



"Apartheid politikoa urtebete beranduago"

Udal eta foru hauteskundeak egin zirenetik urtebete pasa den honetan apartheid politikoa gaitzetsiz mozioa aurkeztu zuen maiatzaren 27ko plenoan Ordiziarak gera Plataformak. Alderdi Politikoen Legea indarrean jarri zuen orain urtebete pasatxo PP alderdiak. Ondorioz AuB eta herri plataformak baliogabetu egin zituzten. Hauek, ordea, aipatu hauteskundeetan herri-tarren botoak jaso zituzten, Ordizian 1.012 hain zuzen eta ondorioz "herriarren borondate demokratikoa" aintzat hartuz 3 zinegotzi zegozkien. Gainontzeko alderdiek ordea, legea errespetatu behar dela esanaz, alde batera utzi dituzte 3 zinegotziok eta bere egin hauei zegozkien postuak.

Ordiziarak Gera Plataformako kideek, ordea, posible dela legearen barruan jardutea aldarrikatu dute behin eta berriz. EAJ-EA eta EB alderdiek ere hasieratik gaitzetsi dute Alderdi Politikoen Legea. Bertan behera geratu beharreko legea dela aipatu dute behin eta berriz.

Esan bezala maiatzeko

ohiko plenoa egin zen 27an eta bertan ziren EAJ-EA alderdietako 7 zinegotzi eta EBko 1. Gai zerrendako puntuekin hasita apirilaren 29ko plenoko akta onartu eta Plataformak aurkeztutako mozioa irakurri eta bozkatzeari ekin zitzaion. Mozioa aurkeztutako Ordiziarak Gera-k hala eskatuta puntuz puntu bozkatu zen. Lehenengo bi puntuak Alderdien Legea bertan behe- ra uztekoak ziren eta plenokide guztiek baiezkua bozkatu zuten. Hirugarren puntuan legez kanpo geratutako alderdiek udaletxeetako jardunean parte hartzeko aukera legalak bazirela aipatzen zuen, herri-tarrek aukeratuak izan zirela eta horien guztien nahiei kaso egin behar zaiela. Bertan ziren alderdietako ordezkariak ezezkoa bozkatu zuten. Ordiziarak Gera Plataformako zerrendaburuak plenoan bertan ziren jendartearen eta boze-ramaleak, Julen Agirrek, apartheid politikoa salatu zuen eta Ordiziako Udala gida- tzen duten ordezkarien konpromisoak hartzeko jarre- ra eza. Publikotik ere herri-tar batek zuzenean galde egin

Dantzari Txiki eguna

Ekainaren 6an izango da aurtengoan Jakintza Dantza Taldeak antolatuta. Eguerdian J.M.Barandiaran Plaza, Garagartza Plaza, Urdaneta, Santa Maria Kalea eta berriz ere J.M.Barandiaran plazara iritsiz ibilbidea egigo dute dantzari talde partehar-tzaileek. Hauexek: Amaiur (Iruñea), Ereintza (Orereta), Otso- ak (Ataun), Goruntz (Gabria), Oin-Arin (Lazkao), Iztueta (Zaldibia), Aurtzaka (Beasain), Ostadar (Beasain) eta Jakintza (Ordizia). Eskainiko dituzten dantzak, berriz, hauexek: ikurrin dantza, agurra, txulalai, uztai txiki, kaskarotz eta fandango eta arin-arina. Ibilbidean zehar baita beste batzuk ere. Ondoren guztiek herriko hainbat elkartetan bazkalduko dute.16:30etik aurrera haur jolasak ere izango dira Enparantza Nagusian.

Ekitaldiak Barrenan

Poltsikoko ikukizunekin jarraituz Kike Biguri eta Javier Mar- cosen 'Kosa de dos' eta 'Guirlache' taldeei dagokie txanda. Ekainaren 4an izango da kafe-antzerki umoretsu hau ikusteko aukera. 'Te amare hasta que me ate' eta 'El apagón' lanak ant- zestuko dituzte. Eta asteburuan, gainera, aukera bikoitza, la- runbatean ere saioa izango baita. Javier Garaialde Jazz bosko- tearen lana entzun ahal izango da behin Kimetz Literatura Lehiaketan irabazleak izan diren lanen sari banaketa egin on- doren. Ikuskizun biak ere iluntzeko 10,30etan hasiko dira Ba- rrenako atarian.

Aurtengo Poltsikoko ikuskizunekin amaitzeko '7 gezur txi- ki' lana aurkeztuko dute hilaren 11n Ramon Agirre eta Jose- rra Senperenak.

Futbol kontuak

Aurreko alean adierazi genizuen errejional mailako taldeak ezin izan ziola kategoriari eutsi. Momentuz ez da horrela izan bada. Federakuntzatik promozio neurketa bat jokatu behar zuela jakinarazi zen, berau bi neurketara jokatu eta gailendu denez mailari eusteko lanak ongi burutu ditu. Dena den, orain- dik ere preferenteko taldearen emaitzen zain geratu beharko du. Hauek, behin liga amaituta azken laugarren geratu dira eta beste batzuk zer egiten dutenaren zain geratu beharko du. Hauek jaitziz gero bigarren taldeak ere behera egin beharko du.

Euskara ikastaroak

16 urtetik gorakoek euskara ikasi edota hobetzeko aukera izango dute udan. Goiztiri AEK-koek uztaila eta irailerako ikastaroak eskaini dituzte jada. Informazio gehiagorako deitu 943-889174 zenbakira edota azaldu Santa Maria Kalea 4-2- ezk.ean. Udalak matrikula subentzionatuko die ikasleei.

zien alkateari eta bere kideei ezezkoa bozkatzeko arrazoia eta alkatea bera azlapenak ematen ari zela publikoa bere desadostasuna adieraziz txili-

bitua joaz hasi zen. Ondorioz pleoa bertan behara geratu zen.

Aitor Calvillo



Alebin neskak Gipuzkoako txapeldun

San Benito ikastolako alebin mailako neskek, Gipuzkoako txapelketa irabazi dute, areto futboleko. Goierriko ligaxka irabazi ondoren, Gipuzkoako taldeen aurka lehiatu behar izan dute. Finala, Azpeitiko Ikasberri ikastolaren aurka irabazi zuten. Taldea ondorengoek osatzen dute: Janire, Maitane, Uxue, Enara, Ana Kristina, Elena, Ainitze, Izaro, Irati eta Kristina. Entrenatzailea Jokin Garmendia dute.

Ikasturte honetan, dena den, beste txapelketan bat irabazi dute alebin neskek: Udaberriko sariketa.

Areto futbola

Maiatzaren 28an izan zuten azken neurketa areto futboleko mutilek. Getariako Irizabal taldearen aurka neurtu ziren eta denboraldia ezin hobeto bukatu zuten 1 eta 3ko emaitzarekin. Goleatzaileak, Miguel Angel, Ekai eta Unai Ormazabal izan ziren. Mikel

Alonso entrenatzaileak ontzat ematen du, bere lehen urteko taldearen denboraldia 6. postuan utzirik. Hurrengo denboraldirako prest eta gogotsu omen dira nahiz eta orain oporraldi luze baten beharra izan.

Koadrila arteko areto futbol txapelketa

Ekainaren 5ean hasiko da koadrila arteko areto futbol txapelketa. Ikastoletako bi kanpexetan jokatuko dira. Parte hartuko duten talde guztiak lazkaotarrak izango dira eta talde bakoitzeko bi kanpotar onartuko dira. Sariak berriz, lehen bi sailkatuak jasoko dituzte eta talde guztiei hasieran jarritako finantza itzuliko zaie baldin eta arau denak aurrera eraman badituzte. Txapelketa honetako laguntzaileak Lazkao Udal eta Kiroldegia izango dira.

Aitor Tello

Etxebizitzak

Lazkao etxebizitzak eskuratzeko eskaera orria bete zuten guztiei jakinarazi, onartuak izan diren ala ez jakiteko Udaltxan jarritako zerrendan ikusteko aukera izango dutela.

Urrats akademia

Azkenaldian Lazkaon zerbitzuak gehitzen ari dira eta horietako bat, Urrats akademiak Lazkao gazteei eskaintzen die-na da. Lehen hezkuntzako, BDHko 1. eta 2. zikloko, Batxilergoko eta Unibertsitate mailako ikasketa laguntzak eskaintzen ditu Urratsek. Elosgi kaleko 16. zenbakian dago Urrats.

Lazkao- Beasain herriarteko txapelketa

Aiako pilotariak baztarrean utzi ondoren Lazkao Pilota Elkar-teak aurrera pauso handia egin zuen maiatzaren 28an Beasaingo pilotarien aurka jokatzeko ari diren txapelketa honetan. Finalerdietako txartela dute jokoan eta etxean 2 eta 1eko abantailarekin neurtuko dira larunbat arratsaldean Beasaingo pilotalekuan. Kadeteak izan ziren lehenak irabazten 22 - 14 emaitzarekin eta bertako pilotariak Jon Barreros eta Ioritz Garmendia izan ziren. Jubenil mailan 19 - 22 galdu zuten eta protagonistak Luken eta Mikel Insausti izan ziren. Senior mailan, berriz, Pako Garmendiak eta Patxi Altunak garaipena lortu zuten, aurkaria 15ean utziz.

Alebin maila

Alebin mailako pilotariak larunbatero elkartzen dira plazako pilotalekuan Gipuzkoako txapelketa jokatzeko. Arratsaldeko 4etan hasita eta zenbait partidu ikusteko aukera izanen da. Larunbat honetan ere izango dira neurketak beraz, zaletu guztiei deialdia zabaldurik geratzen zaie.

Mendi irteera

Datorren astebukaeran Pirineotara bi egunetarako joateko aukera izango dute interesaturik dauden mendizale guztiak. Urte guztian hainbat irteera prestatu dituzten antolatzaileak izango dira beste behin astebukaera honetako arduradunak. Amalur elkartean edo ikastolan (Ttanton) galdetzea edo izen ematea izango da biderik zuzenena orain arte egin ohi den bezala.

Udako kirol kanpaina 2004

Maiatzaren 31tik ekainaren 16 arte izango da izenemateko epea parte hartu nahi duten guztientzat. Hasiera batean 12 urteko umeetatik zabalduko da geroago berriz helduentzat izango da. Kirol eskaintza handiak dituzte eta informazio gehiago nahi izanez gero Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegian galde dezakezue beti ere izen emate egunak errespetatuz.

Otso festa 2004

Urtero bezala, aurtengoan ere Ataungo Udalak eman dio hasiera urte honetako Otso Festari. Ikasturteari amaiera emateko, aurreko astean hasi eta ekainean zehar ospatuko diren hainbat eta hainbat kirol eta kultur ekimenak Otso Festa izenez ezagutzen dira.

Hurrengo astea, ostirala hilak 11, herriko musika ikasle eta Otsoak dantza taldearen eskutik jaialdia antolatu dute Herri Antzokian. Jaialdi hau ekimen garrantzitsua bilakatu da, izan ere, ikasleek kurtsuan zehar ikasitakoa erakusteko aukera paregabea izan ohi dute. Trikitilariak, pianojoleak, gitarrajoleak,

abeslariak, dantzariak, eta abar luze bat ikusi ahal izango dituzue ostiralean iluntzeko 7etatik aurrera Herri Antzokira gerturatzen zareten guztiok.

Hori ostiralean, eta hurrengo egunean, hilak 12, larunbata, Kanpingags & Fila sietek aurkeztuta: 'Bazen behin... gutxi gora behera' antzezlan izango da ikusgai Herri Antzokian iluntzeko 10etatik aurrera. Antzerkiko sarrerak ekainaren 5etik aurrera, Troskaeta, Urbieta, Bitorrene eta Sutegi tabernetan salgai egongo dira. Salneurria: 6 euro.



Ataundarrak Gipuzkoako kantu txapelketan

Maiatzaren 22an, giro goxoan jokatu zen Herri Antzokian, Gipuzkoako Kantu txapelketa. Bi ataundar aritu ziren kantuan. Garazi Aierbe bakarkakoen atalean eta Aiora Urdangarin bikoteetan. Garazi 4. izan zen bakarkakoen atalean eta Aiora, 2. bikoteen atalean.



F.M. 89.2

**EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN**

Tenisean

Gipuzkoako txapeldunak

Maiatzaren 22an jokatu ziren Donostiako Intxaurrendoko kiroldegian Gipuzkoako taldekako tenis txapelketako finalak. Neska alebinetan finalera Oñatiko eta Joxemiel Barandiaran Herri Ikastetxeko taldeak iritsi ziren. Naiara Aldasoro, Oñeka Auzmendi eta Ane Dorronsorok osaturiko taldeak 2 eta 1eko emaitzaz hartu zituzten mendean oñatiarrak.

Aitzol Munduate Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapelketako finalean

Maiatzaren 28an jokatu zen Zarauzko Aritzabatalde pilotalekuan aurtengo Gipuzkoako eskolarteko txapelketa. Astebete lehenago Beasainen jokatu zen kanporaketan Haitz Aierbe eta Aitzol Munduate herritarrek parte hartu zuten. Aitzolek lortu zuen Zarautza joateko txartela. Joan den ostiraleko finala, final oro bezala, lehiatua izan zen, zortzi finalistek lana gogor egin behar izan zuten txapel beltza eskuratu asmoz. Txapelik jantzi ez bazuen ere, oso gustura geratu zen Aitzol egindako lanarekin.

Bat-bateko saioaz gain, bertsopaperen saridunen berri ere jaso genuen Zarautzen. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko 3. eta 4. mailan aipamena lortu zuten Ainhoa Begiristain eta Ander Larrión ataundarrek. Bi gaztetxo hauek bertso bat idaztea zuten lana, 'Pailazoarena egin behar dut antzerki batean' gaiarekin.

Garazi Etxeberria

Urruzuno 2004 lehiaketan saritua

Eusko Jaurlaritzak urtero antolatu ohi dituen prosa eta poesia arloko saridunen izenak kaleratu dira. Aurtengo honetan Garazi Etxeberria herritarrek aipamen lortu du poesia arloan B kategorian 'Zurekin, baina zu gabe' izenburupean aurkeztu duen lanarekin. Sari banaketa oraindik ez da egin, beraz ez dakigu aurten nora joango diren urruzunotarrak. Saria jasotzen duenean, Garazik berak emango dizkigu xehe-tasun gehiago.

Doltza Barandiaran

Aseguru korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE, S.L.

Elozei, 1- behe

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

Udal aurrekontua onartua

Udalbatzak onartua du aurtengo urterako aurrekontua, martxoaren 12ko osoko bilkuran erabaki zuenez. 2004ari aurre egiteko denera 374.457,75 euroko dirutza izango du udalak bere esku, nagusiki diputaziotik eta zuzeneko nahiz zeharkako zer-getatik datorkiona.

Poltsa horretatik banatu beharko da gastu guztietarako, besteak beste udal langileen ordainsariak, hirigintzako obrak, azpiegitura lanak, zerbitzuak eta mantenimendua. Herriak dituen beharrei erantzuteko aurrekontua oso murriztuz geratzen dela ziurtatzen dute udaletxetik, eta diru ezak proiektu ugari zapuztuko ditu beste behin. Futbol zelai zaharraren esparruaren eraberritzea da ezin horren adibide.

Eskola atzeko gunea hiritartzeko lanak udazkenean hasi nahi lituzke udalak, Baltsaleku iturrira bitarteko zatia egokituz. Kirol gune berria eraikiko litzateke orain zelaia dagoen lekuan, erabilera anitzetarako pista baten inguruan. Aparkaleku gunea ere sortuko litzateke batzokiaren atzealdean.

Bestetik, Balentzategi herri eskolako ikasle kopurua nabarmen igo denez, kultur etxeko zenbait gela irakaskuntzarako berregokituko dira, berogailua sartuta. Inbertsio hauen kostuari aurre egiteko, ordea, datozen urteetako diru sarrerei zatia kentzera derrigortuta dago udala, etorkizuneko baliabideak baldintzatuz.

Aimar Maiz



Antonio Olariagak 98 urte

98 urte bete zituen egunean udal agintariek oroigarria eraman zioten Antonio Olariaga 'Alkixa'-ri, herritar adintsuena den partetik. Argazkian Alkixa alkatearekin. (Arg.: Ainhoa Aizpuru).

Liburutegirako lan eskaintza

Liburutegiaren ardura eramango duen pertsona bat behar du udalak. 18 urte beteta izatea, Gabirian erroldatuta egotea eta LH1-eko administrazio titulua edo baliokidea edukitzea eskatzen da. Eskatera-orria ekainaren 11 arte bete daiteke, udaletxean.



Jaunartzea

Irene Arrondo Aizpuru eta Joseba Bidegain neska-mutikoen egin dute aurtengo jaunartzea, maiatzaren 30ean. (Arg.: Arantxa Aizpuru).

Labur labur

- Europako parlamenturako **hauteskundeetarako mahai bakarra** udaletxeko batzar aretoan jarriko da, ekainaren 13an, goizeko 9etatik arratseko 8ak bitartean.
- **Ardo dastaketa** ekainaren 15ean hasiko da. Asteartetan eta ostegunetan bina ordu eginez, hamabost orduko iraupena izango du guztira.
- Aizarnazabalen ospatuko da aurtengo **Eskola Txikien Eguna**, datorren ekainaren 13ko igandean. Balentzategiko ikasle-irakasle eta gurasoak partaide izango dira egun osoko festan.
- 29 lagunek parte hartu zuten maiatzaren 9an **Bizkaiko itsasertzera antolatu zen mendi ibilaldian**. Armintza eta Gorliz arteko bidea egin zuten, paraje ikusgarriekin gozatuz.
- **'Hitzak patriketan' umeentzako antzezlan**a izan zen ikusgai maiatzaren 22an elizako antzokian, Iñaki Beraetxe eta Aitzpea Goenaga aktoreen eskutik.
- **Ekainean KZgunean** egun hauetan izango da Maria Albi-su tutorea: hilaren 10ean eta 24ean, ostegunak, goizeko 9etatik 13etara.



Poletti garaile

III. Zegama-Aizkorri mendi maratoian

Maiatzaren 23an burutu zen Zegama-Aizkorri mendi maratoian Mario Poletti italiarrak errekorra hautsiz, txapela jantzi zuen.

Mario Poletti Munduko Koparen bila dabil eta esan igandean izugarrizko sasoiak erakutsi zuela eta Munduko kopa irabazteko faboritoenetakoa dela esan daiteke mendi maratoian. Bigarren postua Zuhaitz Ezpeleta arrasatearrak lortu zuen eta hirugarren Esteve Canal dataluiniarrak. Emakumezkoetan, Anna Serra izan zen garaile, bigarren postua Esther Hernandez-

zek lortu zuen eta 3. postua Maider Mendia iruñarrak lortu zuen. Informazio gehiago 32. orrian.

6 zegamar

Zegama-Aizkorri mendi maratoia aurten 6 zegamarrek parte hartu zuten, eta denek bukatu zuten denboraren barruan. Lehen herritarren saria Eduardi Irastorzak jaso zuen, sailkapen orokorrean 60. postua lortuz gainera. Behar duzue herrikoen sailkapena:

Eduardo Albizu

1.- Eduardo Irastorza	5:24:48
2.- Guillermo Pinillos	5:36:55
3.- Zorion Barandiaran	5:50:59
4.- Jon Elorza	6:28:45
5.- Aitor Bitarte	6:15:41
6.- Iñaki Lasa	6:37:08



Arantzazuko peregrinazioa

Urteroko Arantzazurako peregrinazioa egin zuten 400 bat herritarrek, gehienak mendiz joan ziren eta eta mendian ibiltzeko ezinen bat zutenek, autobusez edota kotxez egin zuten bidaia. Bazkaltzeko ohiko tokian, elkartu ziren, goizeko 8etan, 9etan eta 10etan oinez abiatutako ibiltariak eta, udalak eskainitako otarteko bana, urteroko sukaldariek goizean goiz egin dako salda ederra eta kafea ere hartzeko parada izan zuten aurretik bertaratuek. Eguzkirik ikusteko aukerarik ez zen izan eta lanbro fina izan bazen ere ibilaldi guztian lagun, hotzik ez egiteak asko lagundu zuen bazkari ordua. Astelehenean, ohi-turari jarraituz jendetza ikaragarria bildu zen, Goiko Bentan 10:15etan, herriko agintari eta elizgizonen atzetik prozesioan tenplura sartu eta Meza Nagusia entzuteko. Ondoren, bertan bildutako zegamarrei argazki bat atera zitzaienten tenpluaren atarian. Arratsaldeko 3ak aldera oinez zetozenak mendiz eta 16:30etan autobusez zetozenak errepidez, abiatu ziren. 19:00ak aldera oinezkoek San Bartolome Ermita inguruan ongi-egietorria egin, haurrei goxokiak banatu eta berriro ere prozesioan San Martin Parrokiara sartu ziren herritarrek, bertan Bittorio Zabalgogeaskoak ongi etorria egin ziren erromesei eta jaiari amaiera emateko, udalak otartekoak eta ardoa banatu zuten Udal arkupeetan eta lagunarteko afariak egin ziren udal arkupe, jatetxe eta elkarteetan.

Sant Sarduni D'Anoiko abestza dator

Duela 15 urteko elkartrukea berreskuratzuz, Zegama eta Sant Sarduni D'Anoiko abesbatzek elkartrukeko lehen hartumana egingo dute asteburu honetan Zegaman. Ekainaren 5ean, eguerdiko 14:00etan harrera ofiziala egingo zaie Udaletxean eta iluntzeko 8etan Parrokian kontzertua eskainiko dute bi abesbatzek. Informazio gehiago 10-11 orrietan.

Idiazabaldarrei harrera ekainaren 6an

Idiazabaldarrak ere ekainaren 6an San Adrianen izango dira urteroko erromesaldia eginez eta, Gurutze Santuko ermitan eman go dion ongi-etorria herriko agintariek. Bertan Zegamako alkateak Idiazabalgoari alkatearen makila eskaniko dio herria gurutzatzen duen bitartean.

San Adrian eta Sancti Spiritun mezak

Ekainaren 6an, izango da Meza aurten, 11.00tan da Meza Mikel Garziandiaren eskutik. Ekainaren 13an San Adrianen Meza izango da Bittorio Zabalgogeaskoaren eskutik goizeko 11etan. Ondoren Udalak eskainitako hamaiketako bertaratuentzat.

Kasinoko XVI. Ipuin lehiaketa

Aurten 16. aldiz, Kasino Elkartekoek Aitxuri herri Eskolako haurren artean Ipuin Lehiaketa antolatu zuen eta Peregrinazio ondoren sariak banatu zituen. Gela bakoitzetik bi ipuin onenei domina bana ematen diete eta parte hartutako haur guztientzat izaten da oparitxo bana. Hona hemen aurtengo irabazleak: **1. go maila:** Xabier Azurmendi Telleria eta Josu Oiarbide Arcelus. **2. maila:** Maddi Ormazabal Arizkorreta eta Amaia Agirrezabalaga Berasategi. **3. maila:** Libe Galdos Urbizu eta Josune Zubizarreta Ormazabal. **4. maila:** Joanes Etxaide Berasategi eta Josune Azurmendi Telleria. **5. maila:** Janire Matxinandiarena Ormazabal eta Onintza Arakama Ezeiza. **6. maila:** Idoia Zubizarreta Ormazabal eta Beatriz Otaegi Baleztena.

Drogomenpekotasunari buruzko hitzaldiak

'Drogomenpekotasuna nola prebenitu familia mailan' gaiari buruz bi hitzaldi izango dira datorren ekainaren 8an eta 9an arratsaldeko 6,30etan Aitxuri Herri Eskolako bideo gelan. AGIPAD eta Zegamako Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik antolatuta. Hitzaldiak herritar guztei daude zabalik.

III. Zegama Aizkorri maratoia

Goierritarren emaitzak

49 goierritarrek eman zuten izena III. Zegama Aizkorri mendi maratoian. Hauetatik 46k lortu zuten Zegamako helmugara iristea. Iñaki Imaz, Aitor Mujika eta Mikel Martikorena izan ziren helburu hori lortu ez zutenak. Ondoren duzue goierritarrei dagokien sailkapena.

Izena	Herria	Postua	Denbora
1. Sodupe Intxausti Arkaitz	Segura	27	4:47.15
2. Etxebeste Azurmendi Aitor	Beasain	28	4:48.47
3. Larrion Oses Xabier	Beasain	31	4:50:23
4. Irizar Arnaiz Martin	Beasain	41	4:57:02
5. Garmendia Mendiburu Mikel	Idiazabal	48	5:03:07
6. Sarasola Otegi Xabier	Ordizia	50	5:03:40
7. Mujika Iraola Jose Gregorio	Beasain	53	5:07:01
8. Urrestarazu Garmendia Koldo	Lazkao	59	5:15:26
9. Sarriegi Mujika Aitor	Lazkao	61	5:16:58
10. Sasieta Barrenetxea Gorka	Ezkio-Itsaso	64	5:18.03
11. Anondarain Aierbe Jon	Ordizia	65	5:18:42
12. Gorostidi Ormazabal Joxean	Ormaiztegi	69	5:20:26
13. Oiarbide Etxeberria Lake	Idiazabal	75	5:24:34
14. Irastorza Larrea Eduardo	Zegama	76	5:24:48
15. Bravo Rodao Clemente Jesus	Lazkao	78	5:25:39
16. Agirre Begiristain Jose Ramon	Ataun	83	5:27:24
17. Eskisabel Polanco Pello	Ordizia	84	5:27:24
18. Iparragirre Erauskin Eneko	Idiazabal	102	5:29:32
19. Pinillos Rodriguez Guillermo	Zegama	121	5:36:55
20. Irazusta Lizaso Joseba	Lazkao	127	5:38:55
21. Urteaga Arrieta Jon	Beasain	128	5:38:55
22. Larrañaga Uranga Andoni	Lazkao	131	5:40:18
23. Iparragirre Erauskin Oroitz	Idiazabal	144	5:48:29
24. Iurrebaso Olaizola Xabier	Beasain	145	5:48:43
25. Sodupe Garmendia Celestino	Segura	148	5:49:59
26. Telleria Ugartemendia Josu	Idiazabal	150	5:50:44
27. Maiz Eskisabel Imanol	Beasain	151	5:50:58
28. Barandiaran Larrea Zorion	Zegama	153	5:50:59
29. Mendia Elustondo Iñaki	Ezkio-Itsaso	155	5:51:07
30. Mendia Elustondo Benito	Ezkio-Itsaso	158	5:52:04
31. Rezola Urola Imanol	Beasain	169	6:00:08
32. Insausti Barrenetxea Paulino	Beasain	174	6:02:36
33. Zabaleta San Pedro Gregorio	Segura	187	6:08:26
34. Rodriguez Neto Felipe	Segura	197	6:14:35
35. Bitarte Larrea Aitor	Zegama	200	6:15:41
36. Sarriegi Mujika Iker	Lazkao	205	6:17:48
37. Arrondo Barandiaran Andres	Ataun	206	6:17:48
38. Etxebeste Azurmendi Paulino	Beasain	220	6:22:32
39. Elorza Ugartemendia Ion Braulio	Zegama	227	6:28:45
40. Mendizabal Ormazabal Eneko	Idiazabal	238	6:35:20
41. Lasa Agirre Iñaki	Zegama	244	6:37:08
42. Rubio Beloki Juan	Ordizia	249	6:39:10
43. Urdangarin Garmendia Jose Migel	Beasain	264	6:55:00
44. Ugartemendia Zeberio Jokin	Olaberria	269	6:56:51
45. Aiestaran Barandiaran Justo	Beasain	277	7:01:32
46. Perez Del Barrio Jose Migel	Beasain	278	7:01:32

Poletti italiarra garaile

Maiatzren 23an burutu zen Zegama-Aizkorri Mendi Maratoian Mario Poletti italiarrak errekorra hautsiz (4:06:46) txapela jantzi zuen. Mario Poletti Munduko Koparen bila dabil eta Munduko kopa irabazteko faboritoenetako dela esan daiteke mendi maratoian. Bigarren postua Zuhaitz Ezpeleta arrasatearrak lortu zuen eta hirugarren Esteve Canal cataluniarrak.



Emakumezkoetan, Anna Serra izan zen garaile, bigarren postua Esther Hernandezek lortu zuen eta 3. postua Maider Mendia iruñarrak lortu zuen.

Goizeko 9etan 325 bat korrikalarik hartu zuten irteera. Goiz partean ateriari eutsi bazion ere, Aizkorraldean lurzorua busti xamarra aurkitu zuten korrikalariek eta bat baino gehiago lurrera erori zen, horien artean Juan Mari Garin izan zen kaltetua, erori zenean, aurrenekotako postuan baitzorian.

Zirkuito osoan nahiz Zegaman bertan jendetza ikaragarria bildu zen. Antolatzaile eta hainbat eta hainbat herritar bolondresen lana eskertua izan zen batez ere korrikalari sufrituen ahotatik. Mario Poletti nahiz Anna Serraren hitzetan zirkuitoaren edertasuna, gogortasuna eta jendearen berotasuna dira maratoi honen ezaugarri garrantzitsuenak eta erakargarrienak.

Kirol bi lerrotan

Pako Aiestaran

Beasaindar prestatzaile fisiokoak Valentzia futbol taldea utziko du. Aurten Espainiako liga eta UEFA txapelketa irabazi ondoren, Rafa Benitez entrentzaileak eta Pako Aiestaranek Valentzia utziko dute. Zurrumurruek arabera Ingalaterrako Liverpool taldera joango dira biak.



Entrenatzaile aldaketa Beasainen

Iñaki Eskisabelek ez du jarraituko Beasain futbol taldea entrenatzen. Berehala jakinaraziko du Beasaingo zuzendaritzak zein izango den datorren denboraldirako entrenatzailea. Talde berrituarekin berriz ere 2.B mailara igotzea izango dute helburu.

Olaztiko Stupenda Jones taldearekin Lazkaoko Brigada Criminal musika taldeak 'Osti bi' diskoa kaleratu du

Punk musikaren tokia aldarrikatu nahian, Gor diskoetxearekin 'Osti bi' izeneko diskoa kaleratu dute Lazkaoko Brigada Criminal eta Olaztiko Stupenda Jones musika taldeek. Seina abesti grabatu dituzte.

Zer da 'Osti Bi'?

Talde bakoitzaren 'ostia' bat bezala. Musika nahiko kañeroa da eta talde bakoitzak zaplazteko bana ematen dio gaur egun dagoen eszenari. Punk estiloa lantzen duten taldeak behar ditugula.

Nondik sortu zen bi taldeek disko bat grabatzeko aukera?

Gor diskoetxeak Euskal Herriko lurralde bakoitzetik talde bat hartu eta cd bat grabatzea zuen asmoa. Azkenean, bi taldetan gelditu da, ez dituzte aurkitu eta. Arbizun jo genuen kontzertu batean egin genuen harremana, gustatu egin zitzairen eta hortik sortu da emaitza.

Grabazioa nola joan da?

Tolosako Bonborenean lokal bat badago eta Iñigo Campos ormaiztegiarrak grabatu du. Fust Fucking taldean gurekin aritu zen aurretik, bajoa jo-



Fust Fucking, Factoria 77 eta Los Rockinson taldeetarik datoz Brigada Criminala. Lau kidek osatzen dute taldea: Haritz Artola (gitarra eta ahotsa), Iker Arza (baxua), Aitor Aldonondo (gitarra eta kora) eta Joseba Arza (bateria). Lazkaoko Torrano taberna zena dute sorleku. 2000. urtean sortu zen Brigada Criminal. Izena, Rip taldearen abesti batetik hartua da. Duela bi urtetik, Udalak utzita, hiltegi zaharrean entsaiatzen dute.

tzen. Astebetean grabatu dugu eta oso gustura aritu gara. Aurreko diskoa eta singlea ere berak grabatu zigun.

Kantuak berriak dira ala zaharren bat ere badago?

Lau kantu berriak dira. Hasierako proiektua sei taldek hiruna abesti sartzea bazen ere azkenean bi talde sartu gara eta seina abesti grabatu ditugu. Lau beraz, berriak dira. Beste abesti bat singletik berreskuratu dugu, eta beste bat diskotik.

Lehen gazteleraz kantatzen ze-

nuten eta orain euskaraz. Zergatik aldaketa hori?

Gure musika erreferentzia nagusia, ingelesez edo gazteleraz kantatutakoa izan da eta horregatik abestu dugu orain arte erdaraz. Baina gure artean beti euskaraz hitz egiten genuenez, euskaraz zergatik ez ziguten kantatzen esan ziguten. Egunkaria itxierak ere izan zuen eragina. Hausnartu eta euskaraz kantatzen hasi ginen. Probatu eta gustura gelditu gara.

Kontzertuak nola daukazue?

Guztira 80 bat kontzertu

emango genituen. Deitzen diguten leku guztietara joaten gara. Zuzenean jotzea gozamen da. Diskoaren aurkezpeneko kontzertua Tolosan egin genuen maiatzaren 28an eta ekainaren 18an, Lakuntza egingo dugu. Hemen gertuan, Olaberriko festetan izango gara.

Lehenengo aldia da diskoetxe batekin lan egin duzuela. Aldaketarik nabarmendu al duzue?

2000. urtean autoprodukzio bat kaleratu genuen eta Torrano tabernaren itxieran single bat. Dena guk egin behar izaten genuen. Orain diskoetxe batekin diskoa kaleratzeak promoziorako balio du. Orain komunikabide ezberdinetan elkarriketak egin ari zaizkigu. Irratietan ere entzuten dira gure kantuak. Poza ere ematen du, bizi guztian denek paso bezala egin dute. Orain arteko lanaren errekonozimendua dela esan daiteke lan hau.

Non eros daiteke CDa?

Lazkaon Gerriko eta Zelata tabernetan, Ordizian Orlegi tabernan eta, Carrefourren.

Aurrera begira?

Ahal dugun leku guztietan jo, abesti berriak egin eta beste diskoren bat atera.

ZUZENKI

A H O L K U L A R I T Z A

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet.net
Elosegi, 16 LAZKAO

Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

e txekin

www.zuzenki.net

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



ZINEA

ORDIZIA:

'Niñera a la fuerza'.

Igandea 6: 14:45.

musika

ATAUN:

Ekainak 11, Herriko musika ikasle eta Osoak dantza taldearen eskutik jaialdia, 19:00etan, Herri antzokian.

BEASAIN:

Ekainak 10, Igartzako ikuskizunak: Polar taldearen kontzertua, Igartza Jauregian, 21:00etan. Sarrera: 4 euro.

Ekainak 11, Igartzako ikuskizunak: Bidinte bakar-lariaren kontzertua, Igartza Jauregian, 21:00etan. Sarrera: 4 euro.

Ekainak 13, Loinatz abesbatzaren kontzertua, Andre Mari Zeruratuaren parrokiari, 19:30ean.



Tobera musika eskolako emanaldiak Segura, Zegama eta Zerainen

Tobera Musika Eskolako ikasleek ekainaren 8an Seguran eta ekainaren 17an Zerainen eskainiko dituzten ikasturte amaierako kontzertuak. Zegaman ekainaren 17an eskainiko den dantza saioan ohiko pieza herrikoia izango dira ikusgai, musikaz lagunduta. Segurako ikasturte amaierako kontzertuan argazkian ageri diren txalaparta ikasle saioa izango da lehenengo aldiz musika eskolako emanaldi batean. Orduak eta egunak agendan dituzue zehaztuta.

Ekainak 14, Piano kotzertua Noemi Bonikonskyrekin, Udal Batzar aretoan, 18:30ean.

Ekainak 17, Musika Eskolako ikasturte-amaierako kontzertua, Usurbe Antzokian, 19:30ean.

Ekainak 17, Igartzako ikuskizunak: Petti bakar-lariaren kontzertua, Igartza Jauregian, 21:00etan. Sarrera: 4 euro.

ORDIZIA:

Ekainak 5, Javier Garaialde boskotearen jazz kontzertua, Kimetz Literatur lehiaketaren sari banaketa ekitaldiaren ondoren. Barrenan, 22:30ean.

Ekainak 13, Korpus eguneko kontzertua, Beti Argi musika bandarekin, Plaza Nagusian, 13:00etan.

SEGURA:

Ekainak 8, Tobera Musika Eskolako ikasle ikasturte amaierako kontzertua, Aterpetxean, 18:30ean.

ZEGAMA:

Ekainak 17, Tobera Musika Eskolako ikasle ikasturte amaierako kontzertua, Kioskoaren ondoan, 18:00etan.

ZERAIN:

Ekainak 17, Tobera Musika Eskolako ikasle ikasturte amaierako kontzertua, Kultur etxean, 19:00etan.



Goierritarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 12 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: Tfnoa.: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia**

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 53 Faxa: 943 02 79 39

San Inazio, 5 **BEASAIN**

antzerkia

ATAUN:

Ekainak 12, Kanpingags & Fila sietek aurkezturik, 'Bazen behin... gutxi gora behera' antzezlan, Herri antzokian, 22:00etan. Sarrera: 6 euro.

BEASAIN:

Ekainak 4, Txindoki-Alkartasuna Insitututuko ikasleek Jardiel Poncelaren 'Lau bihotz balazta eta atzera-martxarekin' antzezlan aurkeztuko du, Usurbe Antzokian, 19:00etan.

ORDIZIA:

Ekainak 4, Poltsikoko ikuskizunak: 'Kosa de dos' eta 'Guirlache' taldeen 'Te amare hasta que me mate' eta 'El apagon' lanak, Barrenan, 22:00etan.

Ekainak 11, Poltsikoko ikuskizunak: Ramon Agirre eta Joxerra Senperenarekin '7 gezur txiki' antzezlan. Barrenan, 22:30ean.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta
(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Ekainak 3-4: Lournaga
(Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.

Ekainak 12-13: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

dantza

ORDIZIA:

Ekainak 6, Dantzari Txiki eguna, Jakintza Dantza Taldeak antolatuturik.

ZERAIN:

Ekainak 6, Erromeria, Elizaren atarian, 18:00etatik 21:00etara.

solasaldia

ZALDIBIA:

Ekainak 9, Iñaki Perurenarekin solasaldia Zahar egoitzan, 19:00etan: 'Euskaldunok lanetik kirolera'.

Ordiziako Komiki Lehiaketaren sari banaketa ekainaren 10ean

Asisko Urmenetaren mintzaldia izango da

Ordiziako III. Komiki Lehiaketaren sariak banatuko dira, datorren ekainaren 10ean, arratsaldeko 7etan, Barrenako Kultur etxean. 30 lan aurkeztu dira, Euskara Biziberritzeko Planaren barruan Euskara Aholku Batzordea antolatutako lehiaketara. Hurrengo alean izango dugu irabazleen berri.

Komikigintzari buruzko hitzaldia

Lehiaketan saritutako lanak ezagutarazi eta sariak banatu ondoren, Asisko Urmeneta komigileak komikigintzari buruzko mintzalditxo eskainiko du. Urmeneta, Komiki Lehiaketako epaimahaikide izan da.

erakusketak

BEASAIN:

Ekainaren 4tik azarora, 'Dantza Beasainen, Aurtzaka 25 urte' erakusketa, Igartza jauregian.

Ekainaren 11n hasita, Buztina Zeramika Zaletuen Elkar-teko ikasleen lanen erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan.

ORDIZIA:

Ekainaren 18ra, Iñaki Olazabalen eskultura erakusketa, Barrenan.

mendi irteera

BEASAIN:

Ekainak 5, Erretiratu eta adineko pertsonentzako mendi irteera: Irunberriko arroila.

Ekainak 12, Erretiratu eta adineko pertsonentzako mendi irteera: Ibilaldi neurtua.

ORDIZIA:

Ekainak 6, Ordiziako Mendizaleak: Ollobarren-Arriaba-Alda.

Ekainak 12, Ordiziako Mendizaleak: Abodi-Ori-Otxagabia.

Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

UDA 2004

Datorren ikasturteko matrikula zabalik!

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Datorren ikasturtea prestatzen hasi nahi duzu?
Kilin-kolon utzitako gairen bat sendotu?
Taldea txikiak eta arreta pertsonalizatua eskaintzen dizkizugu

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Gai eta maila guztiak
- ✓ Unibertsitate maila (Errekuperazioak)
- ✓ Eskolako lanak
- ✓ Ingelera gaztetxoenzat

TAILERRAK (6-12)

- ✓ Arrazonamendua
- ✓ Abstrazioa
- ✓ Autonomia garatu
- ✓ Irakurmena
- ✓ Idazmena

TAILERRAK (12-18)

- ✓ Irakurritakoa ulertu
- ✓ Ikas-teknikak
- ✓ Testu-komentaketak
- ✓ Idatzizko espresioa
- ✓ Ortografia

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

Debaldeko iragarkiak

Etxebizitzak

salgai

➔ Etxebizitza salgai Ordizian, Altamira auzoan. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta balkoi handia. Prezio onean. 943884986. 21:00etatik aurrera deitu.

➔ Ordizian pisua salgai. 117 m². 4 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. Garajea eta trastalekua. Igogailua eta berogailua. 629494742.

errentan eman

➔ Beasainen, erdigunean, duplexa alokatzen da. Mobleztatua. 615787097.

➔ Lazkaon, etxebizitza adosatua alokatzen da. Garajea eta lorategia. 636333966.

➔ Nafarroan, Urbasa mendilerroaren eta Urderraren ondoan, etxea, bere aparkalekuarekin, alokatzen da asteburu, zubi eta abarretarako. 948539381.

errentan hartu

➔ Bikote bat, alokairuzko pisu bila dabil Goierri aldean. 677541055.

➔ Bizitzeko baserri bat errentan hartu nahi da Goierri. 659858564.

➔ Bikote bat, Beasainen edo Ordizian, alokatzeko pisu bila dabil. 607658507.

elkarbanatzeko

➔ Madrilan ikasleekin etxea konpartitzen du. Mutil ez erretzaileak. 914595390.

Garajeak

salgai

➔ Idiazabalen garajea salgai, Kale Nagusian. 665746707.

Lokalak

errentan eman

➔ Beasainen 133 m²-ko lokal komertziala alokatzen da. Erdigunean. Edozein negoziotarako egokia. 615787097.

Animaliak

salgai

➔ 5 txakurkume salgai. Setter irlandes eta hispanier nahasketak. Arrak. 943885665 - 943884547.

erosi

➔ 2 edo 3 ponny erosi siko nituzke. Txikiak eta mantsoak. Emeak. 943161945.

galdutakoak

➔ Beasainen artzain txakurra galdu da. Gris iluna. Arra. Katedun koilara dauka. 943885102.

Ibilgailuak

salgai

➔ Citroen Xantia TD salgai. 98. urtekoa. Egoera onean. 620585468. 17:00etatik aurrera deitu.

➔ Volkswagen Golf GTi salgai. Bigarren modeloa (serie 2). 1.500 euro. 625702862.

➔ Citroen ZX turbo diesela salgai. 50.000 km. Egoera oso onean. NA-AN. 2.500 euro. 635727536.

➔ Rover 420 GSI, 2.OL, 135 Cv, 16 v. salgai. Abs, airbag, aleaziozko llantak, aire egoitua. Egoera onean. 4.200 euro. 666134369.

➔ Ford Escort diesela salgai. 110.000 km. 629415611.

➔ Seat Leon FRa salgai. 17ko llantak. Tetxu solarra eta ESParekin. Urte eta erdi. 2.800.000 pezetan. 678696136.

➔ Peugeot 205, diesela, salgai. 606015394.

Bestelakoak

salgai

➔ Biolina eta gitarra salgai. 665756560.

➔ Akazi egurrez, eskuz eginiko hesolak salgai. 689700647.

➔ Sutarako egurra salgai. 2 metrora moztuta. 20:00etatik aurrera deitu. 943880905.

➔ Idazmakina elektrikoa salgai. Olivetti Et compact 65 modeloa. Pantaila bisualarekin. Ia berria. 678941764.

ATAUN

Etxebizitza **bifamiliarra** eraikitza goaz
450 m²-ko **lorategiarekin**

943 161 032
652 775 741



Pottoka
KAFETEGIA

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

● Pintxo hotz eta beroak

● Ogiltarteak

o s k a r b i

o i n e t a k o a k



Tel. 943 88 41 04
kale Nagusia 34 BEASAIN

Tel. 943 88 19 44
kale Nagusia 25 ORDIZIA

Iues rothers
BEASAIN

Gogoratzen al duzu iazko uda?

Lana

eskaerak

- ➡ Ordizian, neska euskalduna behar da asteburuetan tabernan lan egiteko. 605772623.
- ➡ Zerbitzaria behar da Beasainen. 629160500 - 667734759.
- ➡ Lazkaoko taberna baterako langilea behar da. Beharrezkoa da euskaraz jakitea. 943885862.
- ➡ Esperientziadun zerbitzariak behar dira, Goierriin, uda denboraldirako. 655743368.
- ➡ Lazkaon, tabernarako zerbitzaria behar da, asteburuetarako. 943882029.
- ➡ Ordiziako taberna baterako langileak behar dira, sukalderako eta barrarako. 629114977.

➡ Mutil edo neska bat behar da tabernarako. 943160152. 14:30etik 15:30era deitu.

➡ Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Euskalduna. Esperientziaduna bada hobe. 943880044.

eskaintzak

➡ Magisteritzako ikasle gazte bat prest dago Goierriin, udan lan egiteko. Haurrak zaindu, zerbitzari, tabernari... 943084125 - 665705671.

➡ Emakumezkoa prest dago adineko pertsonak eta gaixoak zaintzeko. Gaez ere bai. Autoa daukat. 6 05724457.

➡ 26 urteko neska prest dago, Beasain aldean, etxeak, atariak... garbitzeko, edo eta haurrak zaintzeko. 687374559.

➡ 21 urteko neska, informatikako ezagupenekin eskaintzen da hurrei klaseak emateko edota zaintzeko. Garbiketarako ere bai. 679556586.

➡ Emakumea prest dago adineko pertsonak zaintzen, garbiketan edo mezularitzan lan egiteko. Orduka edo egun osoz. Ibilgailua daukat. 943085508 - 678781985.

➡ 19 urteko mutila prest dago adineko pertsonak zaintzeko, garbiketan edo beste edozertan lan egiteko. 678781986 - 943085508. Arratsaldean deitu.



**RENAULT
LAZKAO
GARAJEA**

☎ 943 882 442 / 943 888 901
Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea **LAZKAO**

*Olagi
Sagardotegia*

Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

© 943 88 77 26

ALTZAGA



ikasteknik
psikopedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

**Ikasketa oztopoak
Diagnosia eta
tratamendua**

- Test-ak, Frogak
- Tailerrak



kutxa

gizarte ekintza



Santa Ana eskolako ikasleak 1952. urtean

1952. urteko otsailaren 27an ateratako argazkian Ordiziako Sana Ana ikastetxeko ikasleak ageri dira.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Jose Manuel Lizaso, Jose Luis Gurrutxaga, Jose Antonio Riaño, Alfonso Carlos, Jose Balerdi, Bitoriano Magdaleno, Mendizabal, Antxon Gaztañaga, Jose Antonio Roige, Amado Perez eta Denis Gallego.

Erdiko ilaran: Hermando Jesus, Juan Balerdi, Jose Antonio Iturrioz, Alejandro Garmendia, Antxon Imaz, Luis Mari Unanue, Emilio Olalla, Alvaro Etxezortu, Victor Martinez eta Jesus Mari Mintegi.

Beheko ilaran: Jose Luis Ormazabal, Juan Agirrezabal, Luis Mari Irizar, Javier Senperena, Marcial Mintegi, Jose Mari Agirre, Domingo Rodriguez, Jose Esnaola, Javier Atxotegi eta Jose Arana.

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxe: 943 88 19 87 - 676 178 488
OLABERRIA

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATE-
AK eta abar

✕ ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxe: 943 67 36 55

suquia

Gogoratzen al duzu iazko uda?

elektragailuak

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA

e-posta: suquia@jazzfree.com



Aire egokitu portatila eta finkoa

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Order-it aparailua bezeroen esku.

Zure makina digitalako txartelarekin etorri,
dituzun argazki ikusi eta zuk nahi duzun
eskaria egin.

foto ibiltaria
elkano 8
Ordizia

Nahi izanez gero argazkiak CDan
graba ditzazkezu.
EROSOTASUNA ZURE ESKU





ANTZIZAR

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA

+60
- %35



**Gozatzeko astirik
hoberenean zaude.
Goza dezazun aukerarik
hoberena duzu.**

*Antzizar kiroldegian ehuneko
35eko deskontua egingo dizugu
aukera gal ez dezazun.
Zaindu zaitezen zaintzen zaitugu*

www.antzizar.net

tel. 943 887900



BARAKALDO UDAIA